

GUTUNA HUMANISMOARI BURUZ

Ez dugu pentsatzen ekitearen esentziaz era behar bezain erabakigarrian. Eragin baten ondorio den aldetik bakarrik ezagutu ohi da ekitea. Haren onuraren arabera balioztatzen da haren egiazkotasuna. Baina, ekitearen esentzia, gauzatzea da. Gauzatzeak esan nahi du: zerbait bere esentziaren betetasunean garatzea, hara zuzentzea, *producere*. Horregatik, gauzatu, lehen badena bakarrik gauzatu daiteke. Ezer baino lehen «dena» halere, izatea da. Pentsatzeak gauzatu egiten du izateak gizakiaren esentziarekiko duen erlazioa. Ez du egiten eta ekoizten erlazio hori. Izateak berari eman diona izateari eskaini baino ez du egiten pentsatzeak. Pentsatzean izatea hizkuntzara etortzean datza eskaintze hau. Hizkuntza da izatearen etxea. Haren egoitzan bizi da gizakia. Pentsalariak eta poetak dira egoitza honen zaindaria. Beren zaintzea da izatearen agerpenaren gauzatzea, haiek hau beren esatearen bidez hizkuntzara dakarten eta hizkuntzan zaintzen duten neurrian. Pentsatzea ez da horrela ekintza bihurtuko harengandik ondorio bat ateratzen delako edo hura erabil daitekeelako. Pentsatzeak ekiten dio, pentsatzen duen neurrian. Ekite hori agian da soilena eta orobat garaiena, izateak gizakiarekiko duen erlazioari dagokiolako. Eragite oro ordea izatean oinarritzen da eta badenarengana jotzen du. Pentsatzea, aldiz, izateak eska dezan uzten du, izatearen egia esateko. Pentsatzeak gauzatzen du uzte hori. Pentsatzea da *l'engagement de l'Etre pour l'Etre*. Ez dakit hizkuntzaren aldetik bi hauek («par» eta «pour») bakar batean esan ote daitezkeen, alegia: *penser, c'est l'engagement de l'Etre*. Hemen «d'l...» genitiboak esan nahi du genitiboak une berean dela gen. *subjectivus* eta *objectivus*. Halere, «subjektu» eta «objektu» metafisikako titulu desegokiak dira, mendebaldeko «Logika» eta «Gramatika»-ren itxuran oso goiz hizkuntzaren ulerkeraren beren esku hartu dutenak. Gertakari horretan ezkututzen dena, gaur apenas antzeman dezakegun. Egitura esentzial jatorrizkoago batean hizkuntza gramatikatik libratzea pentsatzeari eta poesiari gordea zaie. Pentsatzea ez da bakarrik *l'engagement dans l'action* badenaren alde eta haren bidez gaurko egoerako egiazkoaren zentzuan. Pentsatzea da *l'engagement* izatearen egiaren bidez eta haren alde. Horren historia ez da igarora, gure aurrean dago beti. Izatearen historiari darama bere gain eta zehazten du *condition et situation humaine* oro. Guk aipaturiko pentsatzearen esentzia garbi jaso eta orobat gauzatzen ikasteko, pentsatzearen ulermolde teknikitik libratu behar dugu aurrea. Horren hasiera Platon eta Aristotelesenganaino doa. Pentsatzea bera da haientzat _____ bat, gogoetatzearen prozesua jardutearen eta egitearen zerbitzuan. Gogoetatzea, ordea, hemen _____ eta _____ ikuspegitik ikusia da. Horregatik, pentsatzea, bere hartan hartzen denean, ez da «praktikoa». Pentsatzearen ezaugarria, _____ den aldetik, eta ezagutzearen definizioa jokaera «teorikoa» den aldetik, gertatzen da jada pentsatzearen ulermolde «teknikoan». Erreakzio ahalegin bat da pentsatzeari ekitearen eta egitearen aurrean oraindik autonomia bat gordetzeko. Harrezkero dabil «filosofia» «zientzien» aurrean bere izaera zuritu beharrean. Haren ustez, hau gertatuko da erarik seguruenen bera zientzia baten mailara igoz. Ahalegin hau, ordea, pentsatzearen esentziari amore ematea litzateke. Filosofiak beldur izugarria du ez ote duen begirunea eta balio galduko, baldin zientzia ez bada. Hori akats bat da, ez-zientziatasunaren pareko jartzen dena. Izatea, pentsatzearen osagai den aldetik, utzia da pentsatzearen ulermolde teknikoan. «Logika» da, Sofistak eta Platon ezkeren hasten den ulermolde honen onespina. Berari ez dagokion neurri baten arabera juzgatzen da pentsatzea. Juzgu hau harako jokamoldearen pareko da, alegia: arrainaren izaera eta ahalmena lur lehorrean bizitzeko zenbatean den gauza kontuan hartzearen parekoa. Luzaz, luzeegiz, dago pentsatzea lehor. Dei al daiteke «irrazionalismo» pentsatzea bere elementura eramateko ahalegina?

Zure gutuneko galdera hau hobeto argi daiteke, noski, zuzeneko elkarrizketa batean. Idatzian, erraz ordaindu behar izaten du pentsatzeak bere mugikortasunetik. Batez ere, ordea, nekez gorde dezake berari dagokion neurri aniztasuna. Zientzien aldean, pentsatzearen zorrotasuna ez datza soilik kontzeptuen doitasun artifizialean, hau da tekniko-teorikoan. Datza honetan, alegia: esatea garbi geratzen dela izatearen elementuan eta bere neurri aniztasunaren sotiltasunari agintzen uzten diola. Baina idatzizkoak, bere aldetik, hizkuntz idazketa zuhur baten behartze mesedegarria eskaintzen du. Gaurkoz, zure galderetako bat apartatu nahi nuke. Horren azterketak argi egingo die beharbada gainerakoei.

Zuk galdetzen duzu: *Comment redonner un sens au mot «Humanisme»*. «Humanismo» hitzari eusteko asmotik dator galdera hau. Nire buruari galdetzen diot ea beharrezkoa den hori. Edo mota honetako titulu guztiek sortzen duten zoritxarra ez al dago, bada, nahikoa nabarmen? Aspaldidanik ez da fio jendea «ismo» horiekin. Baina herri iritziaren merkatuak beti eskatzen du zerbait berririk. Beti egon ohi gara prest premia hori

estaltzeko. «Logika», «etika», «fisika» bezalako izenak jatorrizko pentsatzea amaitu denean azaldu dira. Greziarrek gisako titulurik gabe pentsatu zuten beren garai handian. Ezta «filosofia» ere deitzen zioten haiek pentsatzeari. Honek akabo du, bere girotik ateratzen denean. Giroa da hau, nondik pentsatzeak posible duen pentsatzea izatea. Giroa da propio gai egiten duena: gai izatea. Honek pentsatzea bere egiten du eta horrela eram! ten du bere eseÓtziara. Pentsat'ea, garbi esanda, izatearen pen4satzea da. GeniÛi boak zerbait b)koitza esan nahÈ du. Pentsatzea izatearena da, ♦entsatzea, izat%tik agitzen delarik, izateari datxekion neurriaÓ. Pentsatzea une berean izatearÂn pentsatze da, pentsatzeak, izateari datxekiolarik, izateari entzuten dion neurrian. Entzunez izateari datxekiÓn bezala, pentsatzea da bere jatorri esentzialaÛen arabera dena. Pentsatzea da –esan nahi du: izateak, bere helburuaren arabera, bere esentziaren ardura hartu duela. «Gauza» baten edo «pertsone» baten ardura norberaren gainean hartzeak esan nahi du: hura maitatzea, hura gustuko izatea. Gustuko izate honek esan nahi du, jatorriaren arabera pentsaturik: esentzia erregalatzea. Gisako gustuko izatea da gai izatearen esentzia propioa, honek ez bakarrik hau edo bestea erdiesten du, baizik bere jatorrian «presente» dadin, hau da, zerbait izan dadin lortzen du. Nahi izatearen gaitasuna da, hari «esker» zerbait propio izan daitekeela. Gaitasu hau da propio «posiblea», bere esentzia nahi izatean datzana. Nahi izate honetatik abiatuz, izatea pentsatzeko gai da. Hark ematen dio bide honi. Izatea, gai eta nahi den aldetik, da «posiblea». Izatea, elementu gisa, nahi duen gaitasunaren, hau da, posiblearen «indar isila» da. «Posible» eta «posibilitate» gure hitzak, «logikaren» eta «metafisikaren» agindupean noski, errealitatearekiko desberdin bezala dira pentsatuak bakarrik, hau da: izatearen ulermolde –metafisiko– jakin baten arabera actus eta potentia bezala, desberdintasun hori existentia eta essentia arteko desberdintasunarekin bat egiten delarik. «Posiblearen indar isilaz» mintzo banaiz, ez dut adierazi nahi ez possibilitas soilik aurkeztu baten possibile-a, ezta potentia ere existentia-ren actus baten essentia bezala, baizik izatea bera, zeina, nahi duelarik, gai den pentsatzearen gainean agintzeko eta, era horretan, gizakiaren esentziaren gainean, hau da: gizakiak izatearekiko duen erlazioaren gainean. Zerbaitetako gai izatea hemen esan nahi du: hura bere esentzian gordetzea, bere elementuan eustea.

Bere elementutik urruntzen delarik, pentsatzea bere azkenera doanean, galera hori ordezkatzeko du hari _____ balioa emanez, hezkuntza-tresnaren balioa, eta hortaz eskola-ariketarena eta geroago kultur ariketarena. Filosofia, astiro-astiro, zergati goren bidez argitzearen teknika bihurtuko da. Ez da gehiago pentsatu pentsatzen, baizik «filosofiaz» jardun jarduten da. Halako jardueren norgehiagokan, ...ismo baten gisan eskaintzen dira agirian, eta elkarri gaina hartzen ahalegintzen dira. Titulu hauen agintea ez da halabeharrene emaitza. Jendaurrearen diktadura propioan datza, bereziki aro modernoan. «Existentzia pribatua» delakoa ez da gehiago funtsezkoena, hau da: gizaki libre izatea. Agiriko denaren ukapen bezala zurruntzen da. Haren mende dagoen aldaka bihurtzen da eta jendaurretik erretiratzea da bere elikadura. Horrela, bere borondatearen kontra, agiritasunarekiko morrontza egiaztatzen du. Agiritasun hau berau, ordea, da ahalegin bat, metafisikaren aldetik baldintzatua, zeren bere erroak subjektibitatearen agintaritzan baititu, badenaren agiritasuna guztiaren objektibitate baldintzarik gabekora zuzentzeko eta hantxe kokatzeko. Horregatik jausten da hizkuntza komunikabideen bitartekotzaren zerbitzuan, haieran objektibitate, denak denentzat era berean eskura, muga oro zapuztuz zabaltzen delarik. Horrela erortzen da hizkuntza agiritasunaren diktaturapean. Agiritasunak erabakitzen du alde aurretik zer den ulergarri eta zer baztertu behar den ulergarri ez delako. «Sein und Zeit» liburuan (1927), §§ 27. eta 35. «ohi»-ri buruz esandakoak ez zuen soziologiari bidenabar kontribuzio bat egiteko asmoa. Oraindik gutxiago adierazi nahi du «ohi»-ak pertsonaren norbera-izatearen kontra-irudia, era etiko-existentzian ulerturik. Esandakoak aldiz dauka, izatearen egiari buruzko galderatik pentsaturik, hitzak izatearekiko duen hasierako pertenezari erreferentzia. Bere burua agiritasun bezala aurkeztu duen subjektibitatearen aginduaren menpe geratzen da ezkutaturik erlazio hau. Baldin, ordea, izatearen egia pentsatzeari pentsagarri gertatu bazaio, hizkuntzaren esentziari buruzko gogoetak beste maila bat erdietsi beharko du. Ezin izango da gehiago hizkuntzaren filosofia soil. Horregatik bakarrik dauka «Sein und Zeit» obrak (§ 34) hizkuntzaren neurri esentzialari buruzko erreferentzia bat, eta galdera soil honetan datza: izatearen zein modutan da hizkuntza beti hizkuntza bezala. Alde guztietan eta oso azkar zabaltzen ari den hizkuntzaren xahutzea ez dator bakarrik hizkuntz erabilera guztiaren erantzukizun estetiko eta moraletik bakarrik. Gizakiaren esentzia arriskuan jartzetik dator. Halere hizkuntz erabilera soilik zaindu batek ez du egiaztatzen guk arrisku esentzial horri ihes egin diogunik. Gaur, agian, alderantzizkoa adieraz lezake, alegia: guk ez dugula ikusten arrisku hori eta ezin ikus ere ikus dezakegula, gu haren begien aurrean jarri ez garelako. Azken aldian asko eta egiaz beranduegi aipatu ohi den hizkuntz hondamendia ez da arrazoia, hizkuntza, subjektibitatearen metafisika modernoaren agindupean, erremediorik gabe bere elementutik erortzen aritzearen fenomenoaren ondorioa baizik. Hizkuntzak

oraindik bere esentzia ukatzen digu: ezen izatearen egiaren etxea dela, alegia. Hizkuntza gure nahimenaren eta jardueraren eskuetan abandonatzen da badenaren gaineko agintearen tresna bezala. Badena bera egiazko bezala azaltzen da kasua eta ondorioaren ehunean. Badena, egiazko bezala, topatzen dugu kalkulatu-jardunez, baina baita era zientifikoa eta filosofatuz argibideak eta arrazoiak emanez ere. Eta hauen artean dago zergatik argitu ezinezko denaren ziurtasuna. Adierazpen horiekin esan nahi dugu misterioaren aurrean gaudela. Era honetan garbi balego bezala izatearen egia inolaz kausen eta argibideen gainean edo, gauza bera dena, horien oratu-ezintasunaren gainean eraiki daitekeela.

Baldin, ordea, gizakia izatearen hurbiltasunean aurkituko balitz, aldez aurretik ikasi behar du izenbakoan existitzen. Era berean, agiritasunaren bidezko liluramendua bezala pribatuaren ezintasuna ezagutu behar ditu. Gizakiak, hitz egin aurretik, berriro izateak honako arriskuan errepararazi diezaion utzi behar du, alegia eskakizun horren azpian, gutxi edo gutxitan izango duela esatekorik ezer. Era horretan bakarrik emango zaio berriro hitzari bere esentziaren baliotasuna, gizakiari berriz izatearen egian bizitzeko egoitza.

Baina ez al dago gizakiari egiten zaion eskakizun honetan, ez al dago gizakia eskaikizun honetarako prestatzeko ahalegin honetan, gizakiarekiko kezka bat? Nora jotzen du bestela «ardurak» ez bada gizakia berriro bere esentziara itzultzeko aldera? Zer esan nahi du honek besterik, ez bada gizakia (homo) gizatiar (humanus) bihurtzen dela? Horrela gertatzen da Humanitas gisako pentsatzearen helburua; hauxe baita, izan ere, humanismoa: gogoetatzea eta arduratzea gizakia gizatiar dadin, eta ez, ez-gizatiar, «inhumano», hau da, bere esentziatik kanpoko. Beraz, zertan datza gizakiaren gizatiartasuna? Bere esentzian datza.

Baina nondik eta nola zehazten da gizakiaren esentzia? Marxek eskatzen du «gizaki gizatiarra» aitortua eta onartua dadin. «Gizartean» aurkitzen du hori. «Gizatarteko» gizakia da beretzat gizaki «naturala». «Gizartean» izango da gizakiaren «natura», hau da «premia naturalen» osotasuna (jakia, jantzia, ugalketa, premia ekonomikoak) era orekatuan ziurtatua. Kristauak gizakiaren gizatiartasuna, homo-ren Humanitas, ikusten du Deitas-ekiko mugaketan. Salbazioaren historiaren aldetik gizaki da «Jainkoaren seme» bezala, Aitaren eskakizuna Kristorengan entzun eta onartzen duena. Gizakia ez da mundu honetakoa, «mundua» era teoriko-platonikoan hartuz, beste mundurako pasabide igarokor bat baino ez denez gero.

Humanitas, izen horrekin berariaz, lehen aldiz kontuan hartua eta bilatua izango da Errepublikan erromatarren garaian. Homo barbarus-i kontrajartzen zaio homo humanus. Homo humanus hemen erromatarra da, virtus erromatarra goratu eta nobletzen duena greziarrendik harturiko _____«gorputzeratuz». Greziar hauek helenismo berantiarreko greziarrak dira, beren hezkuntza filosofi eskoletan ikasi dutenak. Hezkuntza honek hartzen du eruditio et institutio in bonas artes. Gisa horretan ulertzen den «humanitas» hitzaren bidez itzuliko da. Homo romanus-en romanitas gisa horretako humanitas-ean datza. Erroman aurkitzen dugu lehenbiziko humanismoa. Hartaz, funtsean fenomeno propio erromatar bat da, kultur erromatarrek helenismo berantiarreko hezkuntzarekin topo egitean sortua. Italiako XIV. eta XV. mendeetako Errenazimendu delakoa renaissance romanitatis da. Gaia romanitas denez gero, auzia humanitas da eta hartaz _____greziarra. Helenismoa ordea bere beranduko itxuran eta, hartaz, era erromatarrean ikusiko da. Berpizkundeko homo romanus bera ere homo barbarus delakoari kontrajarria egongo da. Baina in-humanoa Erdi Aroko eskolastika gotikoaren ustezko barbarotasuna da orain. Era historikoan ulerturiko humanismoari dagokio horregatik beti studium humanitatis bat, modu jakin batean antzinateari heltzen diona eta horrela aldioro helenismoaren biziberritze-bihurtuko dena. Hori XV II. menşean, WiÓcklema.-ek, Goethek eta Schiller-ek ek-ri zut%n humanismoan a'altzen da gure !rtean. Hölderlin, ordea, ez da «Humanismo»koa, eta hain zuzen ere gizakiaren esentziaren patua «humanismo» honek ahal duen bain/ era ja¥orritzkoagoan pentsatzen duelako.

Baina Humanismotzat hartzen bada oro har ahalegin bezala gizakia aske dadin bere gizatiartasunerako eta horretan aurki dezan bere duintasuna, orduan gizakiaren «askatasuna»ren eta «natura»ren definizioaren arabera, desberdin izango da humanismoa ere. Era berean bereizten dira gauzatzeko bere bideak ere. Marxen humanismoak ez du antzinatea jo beharrik batere, ezta orobat Sartrek humanismotzat jotzen duen existentzialismoak ere. Aipaturiko zentzu zabalean kristautasuna ere humanismo bat da, bere irakatsiaren arabera guztia gizakiaren arimaren salbaziora (salus aeterna) zuzendurik dagoenez gero eta gizadiaren historia salbazioeko historiaren esparruan azaltzen. Humanismo

mota hauek helburu eta arrazoiaren, mota eta gauzatzearen baliabideen, beren irakatsien formaren arabera edozein direlarik ere, puntu batean datoz bat, alegia: homo humanus-en humanitas naturaren, historiaren, munduaren, munduaren arrazoiaren, hau da: badenaren ulermolde aldeztatik finkaturiko baten ikuspegitik bere osoan zehaztuko dela.

Humanismo oro oinarritzen da edota metafisika batean edo bere burua jartzen du metafisika horren oinarritzak. Gizakiaren esentziaren finkatze oro, aldeztatik badenaren egia buruzko auzia jarritzat ematen duena, berdin dio jakinaren gainean egiten duelarik edo jakin gabe, metafisikoa da. Horregatik, eta hain zuzen ere kontuan hartuz zein modutan finkatuko den gizakiaren esentzia, metafisika ororen berezitasuna datza honetan, alegia «humanistikoa» izatean. Hartaz, humanismo oro da metafisikoa. Humanismoak gizakiaren gizatiartasunaren finkatzean ez bakarrik ez du galdetzen badenak giza esentziarekiko duen erlazioaz. Humanismoak areago eragotzi egiten du galdera hori, metafisikan daukan jatorria dela-eta ez ezagutu ez ulertu egiten duelako. Alderantziz, metafisikan eta metafisikaren bidez izatearen egia buruzko galdera ahaztuaren premia era honetan bakarrik etor daiteke argira, alegia: metafisikaren agintearen erdian «Zer da metafisika» galdera jarritz? Hasteko, «izateari» buruzko galdera oro, baita izatearen egia buruzkoa ere, galdera «metafisiko» bezala sartu behar da.

Lehendabiziko humanismoak, erromatarrek alegia, eta harrezkero orain arte sortu diren humanismo guztiek gizakiaren «esentzia» orokorrena ebidentetzat jotzen dute. Gizakia animal rationale bezala jotzen da. Finkatze hau ez bakarrik da _____ grekoaren itzulpen latinoa, baizik ulerkera metafisikoa bat. Gizakiaren esentziaren finkatze hau ez da faltsua. Baina metafisikak baldintzatua dago. Haren esentziaren jatorria eta ez bakarrik haren mugak zalantzarri bihurtu dira «Sein und Zeit»en. Zalantzarria ezer baino lehen pentsatzeari berak pentsatzeko daukana bezala ematen zaio, inolaz ere ez ordea eszeptizismo huts baten irestera botatzen.

Metafisikak egiaz badena bere izatean aurkezten du eta horrela pentsatu ere pentsatzen du badenaren izatea. Baina ez du pentsatzen bien arteko berezitasuna (cfr. «Vom Wesen des Grundes» 1929, 8. or., gainera «Kant und das Problem der Metaphysik» 1929. 225. or. eta oraindik «Sein und Zeit», 230. or.). Metafisikak ez du galdetzen izatearen beraren egiaz. Galdera hau ez bakarrik ez du metafisikak egin orain arte. Galdera hau metafisikarentzat, metafisika den aldetik, erdietsi ezinezkoa da. Izatea zain dago oraindik gizakiarentzat pentsagarri dadin. Gizakiaren esentziaren finkatzeari dagokionez edozein delarik ere animal-en ratio-a eta esentziaren bizitza zertzeko modua, dela «printzipioen ahalmen bezala», dela «kategorien ahalmen» bezala edo bestela, alde guztietan eta aldioro arrazoiaren esentzia oinarritzen da honetan, alegia: badena bere izatean sumatze bakoitzerako izateak berak argituta egon behar duela eta bere egian agitzen dela. Era berean dago «animal», _____, «bizitzaren» ulermoldeari lotua, ezinbestean badenaren ulermoldearen gainean oinarritzen baita, _____ eta _____ bezala, haien barruan azaltzen baita biziduna. Bestalde, ordea, eta ezer baino lehen galdetu beharra dago ea gizakiaren esentzia, hasiera bertatik eta aldeztatik dena erabakitzen duena bezala, animalitas-en mailan ote datzan. Gizakiaren esentziarekiko bide zuzenean ote goaz inolaz, guk gizakia bizidun bat bezala besteen artean, landare, abere eta Jainkoaren ondoan ipintzen dugun bitartean? Horrela joka daiteke, ipini daiteke gizakia era horretan badirenen artean baden bat bezala. Beti azaldu ahal izango da horrela zerbait zuzena gizakiari buruz. Baina garbi eduki behar da gizakia, era horretan, animalitas-en esparru esentzian bazterturik geratuko dela, baita aberearen parean ipini gabe, desberdintasun berezi bat aitortzen bazaio ere. Izan ere beti pentsatzen da printzipioz homo animalis-ean, baita anima animus sive mens bezala eta geroago subjektu bezala, pertsona bezala, espiritu bezala ipintzen bada ere. Gisako jartze hori da metafisikaren modua. Baina horrela gizakiaren esentzia oso gutxi hartuko da kontuan eta ez da bere jatorrian pentsatua, jatorri esentzial hori gizatasun historikorako beti etorkizun esentzial delarik. Metafisikak gizakia animalitas-etik abiatuz pentsatzen du eta ez du pentsatzen bere humanitas-en arabera.

Metafisikak itxi egiten da osotasun esentzial sotilaren aurrean, alegia gizakia bere esentzian bakarrik aurkezten dela bere izatea mintzo zaionean. Eskakizun honetatik abiatuz bakarrik aurkitu «du» non bizi den bere esentzia. Bizitza honetatik abiatuz «dauka» berak «hizkuntza» egoitza bezala, bere esentzia ekstatikoa babesten duena. Izatearen argiunean egoteari deitzen diot nik gizakiaren ek-sistentzia. Gizakiari bakarrik dagokio izateko modu hori. Era horretan ulerturiko ek-sistentzia ez bakarrik da arrazoiaren, ratio, posibilitatearen arazoia, baizik ek-sistentzia da gizakiaren esentziak bere patuaren jatorria gordetzen duen lekua.

Eksistentzia esan daiteke bakarrik gizakiaren esentziari buruz, hau da: «izateko» modu gizatiarrari buruz; izan ere, gizakia bakarrik dago, guk dakigun neurrian, ek-sistentziaren patuan trabatua. Horregatik ezin pentsa daiteke ek-sistentzia bizidunen mota desberdinen arteko mota berezi bezala, emanik gizakiari eman zaiola bere izatearen esentzia pentsatzea eta ez bakarrik bere egiturari eta bere jarduerari buruz naturaren eta gertakarien historien berri ematea. Horrela oinarritzen da halaber ek-sistentziaren esentzian guk, «abereaz» erkatuz, gizakiari, animalitas den aldetik, egozten dioguna. Gizakiaren gorputza zerbait esentzialki bestelakoa da aberearen organismoaren aldean. Horrela oraindik ez dago gauditua biologismoaren akatsa, alegia: gizakiaren gorputzezkoari arima, eta arimari espiritua eta espirituari existentziala gaineratuz eta sekula baino ozenago hots eginez espirituaren balio handia, ondoren dena bizitzaren esperientziaren kontura botatzeko, beldurtzeko bezala ziurtatuz pentsatzeak, bere kontzeptu zurruneekin, bizitzako korrantea hondatzen duela eta izateaz pentsatzeak existentzia itsusten duela. Psikologiak eta kimika fisiologikoak gizakia organismo den aldetik natur zientzien arabera azter dezaketela, ez da froga bat esateko «organiko» honetan, hau da: gorputz zientifikoki adierazian datzala gizakiaren esentzia. Energia atomikoan naturaren esentzia gorderik dagoela esateak bezain gutxi balio du horrek. Litekeena da aldiz naturak gizakiak egiten duen ahalegin teknikoari eskaintzen dion alderdian hain zuzen ere bere esentzia ezkutatzea. Gizakiaren esentzia abere-organismo batean izatea bezain gutxi baztertu eta labur daiteke gizakiaren patu esentzial urri hau gizakia arima hilezkor batez edo adimen ahalmenaz edo pertsona izaeraz hornitua dagoela adieraziz. Aldiro esentziaren gainetik pasatzen da, eta hori hain zuzen ere proiektu metafisiko beragatik.

Gizakia dena, hau da: metafisikaren tradiziozko hizkeran gizakiaren «esentzia», bere ek-sistentzian datza. Baina era honetan pentsaturiko ek-sistentzia ez da existentia kontzeptu tradiziozko bera, existentia-k errealitatea esan nahi baitu, eta essentia-k aldiz posibilitatea. «Sein und Zeit»en (42. or.) kurtsibaz dator esaldia: «Hor-izatearen (Dasein) 'esentzia' bere existentzian datza». Hemen auzia ez da existentia eta essentia arteko kontrajartze bat, ez baitaude zalantzan oraindik izatearen zehaztapen metafisiko bi hauek, eta zer esanik ez beren arteko erlazioa. Are gutxiago dauka esaldiak hor-izateari buruzko adierazpen orokor bat, XVIII. mendean «objektu» hitzerako harturiko deitura honek egiazkoaren errealitatearen kontzeptu metafisikoa adierazi behar duen neurrian. Aldiz adierazten du esaldiak: gizakia halako moduan azaltzen dela, non «hor» (Da) hori, hau da izatearen argiunea, den. Hor horren «izate» horrek, eta horrek bakarrik dauka eksistentziaren funtsezko ezaugarria, hau da: izatearen egian barne-egote ekstatikoa. Gizakiaren esentzia ekstatikoa ek-sistentzian datza, zeina era metafisikoan pentsaturiko existentia-ren aldean desberdin den. Erdi Aroko filosofiak hau actualitas bezala hartzen du. Kantek errealitatea bezala aurkezten du existentia, esperientziaren objektibotasunaren zentzuan. Hegelek existentia definitzen du bere burua ezagutzen duen subjektibitate absolutuaren ideia. Nietzschek existentia berdinen itzulera betikotzat jotzen du. Irekita gelditzen da galdera ea egiaz existentia hau, bere ulermoldeetan errealitate bezala –ulermolde hauek lehen begiratuan bakarrik dira beren artean desberdin– nahikoa den besterik ez bada harriaren izatea edota bizitza, landareen edo piztien izate bezala, behar bezala pentsatzeko. Edozein modutan bizidunak direna dira, beren izatetik, izate bezala, izatearen egian egon barik eta egote horretan beren izatetik aurkezten dena gorde barik. Den ororen badirenen artean, biziduna da guretzat agian pentsatzen zailena; alde batetik, guretzat ahaide hurbilen delako, eta bestetik une berean amil baten bidez gure izate ek-sistententik apartaturik dagoelako. Alderantziz, balidurike jainkozkoaren izatea hurbilago datorrigula bizidunen arrotasuna baino, hurbilago hain zuzen urruntasun esentzial batean, urruntasun den aldetik gure izate eksistenteari orobat bertakoago zaigularik aberearekiko gorputzezko ahaidego pentsa ezinezko eta amesgaiztozkoa baino. Gogoeta hauek argi berezia isurtzen dute gizakia animal rationale bezala izendatze ohiko eta hartaz azkarregiaren gainean. Izan ere, landareak eta piztiak, bakoitza bere ingurunean hesiturik, baino sekula ez izatearen argiunean –eta hau bakarrik da «mundu»– librok jarriak daudelako, falta zaie hizkuntza. Baina ez daude zintzilik, hizkuntza ukatua zaielako, mundurik gabe beren ingurunean. Zinez «ingurune» hitz honetan pilatzen da bizidunen ezkutuki guztia. Hizkuntza ez da beren izatean organismo baten azalpena, ezta ere bizidun baten adierazpena. Horregatik ezin pentsa dezakegu bere esentziaren arabera bere zeinu-izaeratik, ezta agian bere esanahidun izaeratik ere. Hizkuntza da izatearen beraren etorrera argitzaile-estaltzailea.

Eksistentzia, ekstatikoki pentsatua, ez dator bat existentia-rekin ez edukiari dagokionez, ez formari dagokionez ere. Existentia-k (existence) adierazten du aldiz actualitas, errealitatea, ideia bezala harturiko posibilitate soilaren aldean. Gizakia egiaren patuan den finkatzea adierazten du ek-sistentziak. Existentia

beti da zerbaiti, bere ideian azaltzen denean, ematen zaion deitura. Honako esakuneak: «gizakia eksistitzen da» ez dio erantzuten gizakia egiaz ote den edo ez ote den galderari, baizik gizakiaren «izateari» buruzko galderari erantzuten dio. Galdera hau gaizki egin ohi dugu, bai galdetzen dugunean gizakia zer den, edo galdetzen gizakia nor den. Izan ere Nor? eta Zer? galdetzean, pertsonaren edo objektuaren ikuspegia hartzen dugu bertatik. Baina pertsonazkoak bezala objektuzkoak huts egiten du eta eragozten eksistentzia historiko-existentialaren funtsezkoena. Horregatik berariaz idazten da aipatutiko esaldian «Sein und Zeit» liburuan (52. or.) «esentzia» hitza komen artean. Horrek adierazten du orain «esentzia» ez dagoela definitua ez esse essentiae-ren arabera, ezta ere esse existentiae-ren arabera, baizik horizatearen (Dasein) izaera ekstatikoaren arabera. Existente bezala pairatzen du gizakiak horizatea (Dasein), hor hori izatearen argiune bezala hartzen duenez «arretaz». Hor-izatea bera azaltzen da «jaurtikia» bezala. Izatearen, patuaren patugile den aldetik, jaurtikitzean azaltzen da.

Baina azken nahasmendua litzateke gizakiaren esentzia eksistenteari buruzko esaldi hori ulertu nahi izango balitz teologia kristauak Jainkoari buruz adierazitako pentsakizun bat (Deus est suum esse) gizakiari era sekularizatuan egotzirik bezala; izan ere, ek-sistentzia ez da ez esentzia baten errealizatea, ezta ere ekoizten du ek-zistentziak berak eta jartzen esentziala. Ulertzen bada «Sein und Zeit» liburuko «proiektua» jartze irudikatzaile bat bezala, orduan hura hartzen da subjektibitatearen lorpen bezala eta hura ez da pentsatzen soilik «izatearen ulerkera» «munduan-izate»-aren «analitika existentziala»-aren esparruan bakarrik pentsatu behar den bezala, hau da izatearen arginearekiko erlazio ekstatiko bezala. Subjektibitatea uzten duen beste pentsaera horren akabantza eta gauzatze askizkoa zailagotu egin du «Sein und Zeit» «en lehen parteko hirugarren atala, «Zeit und Sein» alegia, argitaratu gabe uzteak (ik. «Sein und Zeit», 39. or.). Hemen dena iraultzen da. Aipaturiko atala argitaratu gabe geratu zen, pentsatzea ez zelako gauza iraulketa hori nahikoa garbi adierazteko, eta metafisikaren hizkuntzaren laguntzaz ere ez zuelako aurrera egiten. «Vom Wesen der Wahrheit» hitzaldi, 1930ean pentsatu eta mintzatuak, baina 1943ra arte argitaratu gabeak, eskaintzen du nolabaiteko susmo bat «Sein und Zeit»-etik «Zeit und Sein»-erako itzulketaren pentsatzeari buruz. Itzulketa hau ez da «Sein und Zeit»-en ikuspegiaren aldaketa bat, baizik han bakarrik iristen da bilatzen den pentsatzea «Sein und Zeit» esperimentatua den neurrira eta esperimentatua hain zuzen ere izatearen ahaztearen funtsezko esperientziatik abiatuz.

Sartrek aldiz existentzialismoaren oinarritzko printzipioa era honetan adierazten du: Existentzia esentziaren aurretik dator. Horretan existentia eta essentia Platonez gero Metafisikak dioen zentzuan hartzen du, alegia: essentia existentiaaren aurretik dator. Sartrek irauli egiten du esaldia. Baina esaldi metafisiko baten iraulketa esaldi metafisiko bat da beti. Esaldi hori den aldetik, esaldiak metafisikarekin tinko dirau izatearen egiaren ahanzturan. Edozein delarik ere filosofiak essentiaren eta existentiaaren arteko erlazioa definitzeko daukan modua, dela Erdi Aroko eztabaiden zentzuan edo Leibnizen zentzuan edo bestela, horren guztiaren aurretik ikertzeko gelditzen da oraindik ea izatearen zein patuaren arabera gertatzen den bereizkuntza hau izatean, esse essentiae eta esse existentiae bezala, pentsatzearen aurretik. Pentsatzeko geratzen da, zergatik geratu izan den galdetu gabe izatearen patuari buruzko galdera hau eta zergatik ezin zuen izan pentsatua. Edo ez al da, essentiaren eta existentiaaren arteko bereizkuntza honekin gertatzen dena, izatearen ahanzturaren seinale bat? Ez da pentsatzekoa patu hori pentsatzearen akats soil bategatik gertatu dela, are gutxiago mendebaleko pentsatze goiztiarraren gaitasun eskasagatik. Bere jatorri esentzian ezkutaturik dagoen essentiaren (esentzialtasuna) eta existentiaaren (errealitatea) desberdintasunak menderatzen du mendebaleko historia eta Europa markatu duen historia guztia.

Sartrearen esaldi nagusiak, existentiari essentiaren aldean lehentasuna ematen diolarik, zuritu egiten du «existentzialismo» izena filosofia horri egoki datorkion izenburu bezala. Baina «existentzialismo»-ko esaldi nagusiak ez dauka batere zerikusirik «Sein und Zeit»-eko esaldi harekin; alde batera utzirik ezen «Sein und Zeit»-en essentiaren eta existentiaaren arteko erlazioari buruzko esaldirik ezin esan daitekeela, izan ere alde aurretiko bat prestatzea da hango egitekoa. Hori gertatzen da, esandakoaren arabera, era nahikoa zabarrean. Gaur lehen aldiz esateko dagoena bultzada bat izan daiteke beharbada, gizakiaren esentzia eraman dezan, berak pentsatuz, horretan agintzen duen izatearen egiaren neurrira. Baina hau gerta daiteke bakarrik izatearen duintasunerako eta gizakiak eksistituz eusten duen hor-izatearen mesederako, ez ordea gizakiaren onerako, era horretan bere sorkuntzaren bidez zibilizazioa eta kultura baliozko egin ditzan.

Gu, gaurkook, izatearen egiaren neurri irits gaitezen, hura oldoztu ahal dezagun, beharturik aurkitzen gara ezer baino lehen argitzera nola dagokion izatea gizakiari eta nola galdekatzen duen. Gisako esperientzia esentziala gertatzen zaigu jabetzen hasten garenean ezen gizakia dela, existitzen den heinean. Tradiziozko hizkeran esanez, horrek esan nahi du: gizakiaren ek-sistentzia substantzia bat dela. Horregatik errepikatzen da «Sein und Zeit»en sarri honako esaldia: «Gizakiaren ‘substantzia’ existentzia da» (117. 212. 314. or.). Baina «substantzia» da, izatearen historiaren arabera pentsaturik, hain zuzen _____-ren itzulpen mozorratzailea, hitz horrek presentearen presentzia adierazten duelarik eta gehienetan, bikoiztasun asmagaitz baten bidez, presente dagoena bera adierazten duelarik. Baldin guk pentsatzen badugu «substantzia» izen metafisikoa, «Sein und Zeit»en iragartzen den zentzuan, liburuan gauzatzen den «suntsipen fenomenologikoa»aren arabera (ik. 25. or.), orduan «gizakiaren substantzia eksistentzia da» esaldiak ez du esan nahi besterik ez bada: gizakia bere esentzia propioan izateari aurkezten zaion era da izatearen egiaren barruan egote ekstatikoa. Gizakiaren esentziaren definizio honen bidez ez dira faltsotzat deklaritzen, ez zaputzen gizakiaren ulermolde humanistikoak animal rationale bezala, «pertsone» bezala, espiritu-arima-gorpuzdun izate bezala. Aldiz pentsamendu bakarra da ezen gizakiaren esentziaren definizio humanistiko gorenak ez dutela esperientatu oraindik gizakiaren duintasun propioa. Zentzu horretan «Sein und Zeit»eko pentsamendua humanismoaren kontra dago. Baina kontrajartze honek ez du esan nahi gisako pentsaerak humanismoaren kontrakoaren kontra jotzen duenik eta inhumanoaren alde dagoenik, ezgizatiarra aldeztzen duenik eta gizakiaren duintasuna makurtzen duenik. Humanismoaren kontra pentsatuko da, gizakiaren humanitas nahikoa goian jartzen ez duelako. Gizakiaren gorentasun esentziala ez datza noski badenaren substantzia haren «subjektu» izatean, izatearen agintedun bezala, badenaren izate-badena «objektibitate» ospetsuegian desegiten uzteko.

Gizakia, aldiz, izateak berak izatearen egian «botea» da, horrela, era horretan ek-sistituz, izatearen egia babes dezan, horrekin izatearen argitan badena, bera den badena den aldetik, azal dadin. Azaltzen ote den eta nola azaltzen den, jainkoa eta jainkoak, historia eta natura izatearen argiunean agertzen ote diren eta nola agertzen diren, han dauden edo ez dauden, ez du erabakitzen gizakiak. Badenaren etorrera gizakiaren patuan datza. Gizakiarentzat ordea geratzen da galdera ea bere esentziaren patuzkoa, patu honi dagokiona aurkitzen duen; izan ere, honen arabera, ek-xistitzen dena den aldetik, babestu behar du izatearen egia. Gizakia da izatearen artzaina. Horren kontura bakarrik pentsatzen du «Sein und Zeit»ek, existentzia ekstatikoa «kezka» bezala esperimentatua denean (ik. § 44a, 226. or eta hh.).

Baina izatea... zer da izatea? Bera berbera da. Hau esperimentatzen eta esaten ikasi behar du etorkizuneko pentsaerak. «Izatea» ez da jainkoa ezta munduaren oinarria ere. Izatea baden oro baino urrunago dago eta orobat gizakiarekiko hurbilago dago baden oro baino, dela hau harri bat, abere bat, artelan bat, makina bat, dela aingeru bat edo jainkoa. Izatea da hurbilena. Baina hurbila gertatzen zaio gizakiari urrunena. Gizakiak eusten dio lehenbizi beti eta bakarrik badenari. Baina pentsatzeak badena baden aldetik irudikatzen duenean, izatearekin erlazionatzen du. Baina egiaz beti pentsatzen du badena, baden aldetik, eta ez inolaz izatea, izate den aldetik. «Izatearen galdera» beti da badenari buruzko galdera. Izatearen galdera ez da izenburu amarrukor honek adierazten duena: izateari buruzko galdera. Filosofiak, Descartesengan edo Kantengan bezala, «kritiko» bihurtzen denean ere, beti segitzen dio irudikatze metafisikoen arrastoari. Badenetik abiatuz badenerantza pentsatzen du, izateari bidenabar begiratu bat botaz. Izan ere, izatearen argitan dago badenaren irteera oro eta harenganako itzulera oro.

Baina metafisikak izatearen argiunea ezagutzen du edota presentearen honako begiratu bezala «itxuran» (____) edota kritikoki subjektibitatearen aldetik irudikatze kategorialaren ikuspegian ikusia bezala. Hau da: izatearen egia argiune bezala ezkutuan geratzen zaio metafisikari. Ezkututasun hau halere ez da metafisikaren ezintasun bat, baizik bere aberastasun propioaren altxorra da, berari eutsia eta orobat erakutsia. Baina argiunea bera da izatea. Berak ematen dio metafisikaren izatearen patuaren barruan lehenbizi ikustoki bat, nondik presente dagoenak presente egiten zaion gizona ukitzen duen, halako moduan non gizakiak berak sumatzean (____) izatea uki dezakeen (____, Aristoteles, Met. _10). Ikustoki horrek erakartzen du begirada berarengana. Hura honen eskutan geratzen da, sumatzea irudikatze-ekoizte bihurtu denean res cogitans-en perceptio-an certitudo-ren subiectum bezala.

Zein harreman du, baldin inolaz horrela galde badaiteke, izateak eksistentziarekiko? Izatea bera da harremana, berak eksistentzia bere esentzia existentziala, hau da: ekstatikoa berarekin daraman neurrian eta berarengana erakartzen izatearen egiaren leku bezala badenaren barrura. Hain zuzen ere gizakia, ek-sistente den aldetik, harreman horretan –hala destinatzen baitzaio izatea bere buruari– zutitzen delako,

berak izateari ekstatikoki eusten dionez, hau da, kezka bere gain hartzen duenez, ez du ezagutzen lehenbizi hurbilena eta bere burua hartzen du hurbilenaren hurrengotzat. Are, hurrengo hau jotzen du hurbilekotzat. Baina hurbilena baino hurbilago eta orobat ohiko pentsaeraren ustez urrunena baino urrunagoa dago hurbila bera: izatearen egia.

Izatearen egia ahaztea esentzian pentsatu gabeko badenaren erasoaren mesedetan da «S.u.Z.»-en aipaturiko «erorketaren» zentzua. Hitzak ez du adierazten gizakiaren bekatuan erortze bat era «moralfilosofikoan» eta orobat era sekularitu batean ulertua, baizik gizakiak izatearekiko duen harreman esentzial bat izendatzen du izateak gizakiaren esentziarekiko duen zerikusiarren barruan. Halaber, abiatze gisan erabiltzen diren «propiotasun» eta «ezpropiotasun» izenburuek ez dute adierazten bereizkuntza moral-existenzial bat, ezta «antropologiko» bat ere, baizik oraindik pentsatzeko dagoen, –orain artean filosofiari ezkutuan geratu zaiolako– gizakiaren esentziak izatearen egiarekiko duen erlazio «ekstatikoa». Baina erlazio hau den bezalakoa da ez ek-sistentziagatik, baizik eksistentziaren esentzia da existentzial-ekstatikoa dena izatearen egiaren esentziatik abiatuz..

Lehen aldiz «S.u.Z.»-en adierazten saiatzen den pentsaerak lortu nahi lukeen gauza bakarra zer bait sotila da. Eta sotila den aldetik izatea misteriozko geratzen da, agintze zuhur baten hurbiltasun xumea. Hurbiltasun hau hizkuntza bera bezala garatzen da. Baina hizkuntza ez da soilik hizkuntza, guk, sortzen denean, soinu egiturazko (grafismoa), doinuzko eta erritmozko eta esanahizko (zentzua) batasun bezala irudikatzen baitugu. Soinu egitura eta grafismoa hitzaren gorputz bezala pentsatzen ditugu, doinua eta erritmoa arima bezala, eta esanahiari dagokiona hizkuntzaren espiritu bezala. Hizkuntza gizakiaren esentziarekiko parekotasun batean pentsatzen dugu, hau animal rationale den aldetik, hau da gorputz-arima-espiritu batasun bezala irudikatua denez. Halere, homo animalis-en humanitas-ean eksistentzia eta honen bitartez izatearen egiaren erlazioa gizakiarekiko ezkutuan gertatzen den bezala, era berean estaltzen du hizkuntzaren ulermolde metafisiko-aberakorra beronen esentzia historiko-ontologikoa. Esentzia honen arabera izateak agitu eta eraiki duen izatearen etxea da hizkuntza. Horregatik pentsa daiteke hizkuntzaren esentzia izatearekiko korrespondentzia-tik abiatuz eta hain zuzen ere korrespondentzia hori bezala, hau da: gizakiaren esentziaren egoitza bezala.

Baina gizakia ez da bizidun bat, beste zenbait gaitasunen artean hizkuntza ere daukana. Aldiz, hizkuntza da izatearen etxea, han biziz ek-sistitzen da gizakia, izatearen egiarena izaki, hura babestuz.

Horrela gertatzen da, ezen, gizakiaren gizatiartasuna ek-sistentzia bezala definitzean, ez dela gizakia esentzialena, eta bai izatea ek-sistentziaren ekstatikoaren neurri den aldetik. Neurria ez da, ordea, ohiko esparruzkoa. Aldiz espaziosko oro eta denbora-esparruzko oro neurritzkoan azaltzen da, neurri den aldetik izatea bera delarik.

Pentsatzeak harreman sotil hauei egiten die jaramon. Haientzat bilatzen du hitz egokia aspaldidanik helaraziriko metafisikaren eta bere gramatikaren hizkuntzaren erdian. Pentsatze hau, emanik izenburu batean zer bait aurkitzen dela, humanismo bezala kalifika ote daitekeen? Ez, noski, humanismoak metafisikoki pentsatzen duenez. Ez noski, baldin existentzialismo bada eta Sartre esaten duen esaldia bere egiten badu: Précisément nous sommes sur un plan où il y a seulement des hommes (L'Existentialisme est un humanisme, 36. or.). Horren ordez, «S.u.Z.»-en arabera pentsatuz, esan beharko litzateke: Précisément nous sommes sur un plan où il y a principalement l'Être. Nondik dator ordea eta zer da le plan? L'Être et le plan gauza bera dira. «S.u.Z.»-en (212. or.) berariaz eta zuhurki dago esana: il y a l'Être: «hura ematen da» (es giba) izatea. *Il y a* horrek gaizki itzultzen du «es giba» (hura ematen da). Izan ere hemen «ematen den» (giba) «hura» (es), izatea bera da. «Ematen da» horrek izendatzen du izatearen esentzia ematen duena, bere egia bermatzen duena. Norbera ematea irekian, ireki horrekin batera, izatea bera da.

Une berean «ematen da» erabiltzen da behingoz «izatea da» esaera ekiditeko; izan ere «da» baden zer baitengatik esan ohi da. Zer bait horri badena deitzen diogu. Izatea ordea ez «da» hain zuzen ere «badena». «Da» esaten bada bestelako ulermolderik gabe izateagatik, orduan izatea errazegi irudikatuko da «baden» bat bezala, baden ezagunaren eran, zeinak kausa bezala ekoizten baitu eta ondorio bezala egina baita. Halaber esaten du Parmenidesek pentsaeraren hasiberrian: _____: «hain zuzen da izatea». Hitz honetan ezkututzen da jatorrizko misterioa pentsatze ororako. Beharbada «da» hori era zehatzean izateagatik bakarrik esan daiteke, horrela baden oro ez «da» eta ezin «da» izan propioki. Baina pentsatzeak izatea bere egian esatera iritsi behar duenez, izatea baden batetik abiatuz baden bat bezala ulertu ordez, pentsatzearen arretak irekita egon behar du ea baden eta nolakoa den izatea.

Parmenidesen _____ pentsatzeke dago oraindik. Horretan antzeman daiteke nola doan filosofiaren aurrerakuntza. Bere esentziari kontu egiten badio, ez du batere aurrera egiten. Leku berean ematen ditu urratsak, beti gauza bera pentsatzeko. Aurrera egitea, leku horretatik aurrera hain zuzen ere, oker bat da pentsatzeari, berak egiten duen itzal batek bezala, segitzen diona. Izatea oraindik pentsatzeke dagoelako, horregatik esaten da «S.u.Z.»en izatearen kontura: «ematen da». Baina *il y a* horri dagokionez ezin espekula daiteke zuzenean eta bermerik gabe. «Ematen da» horrek agintzen du izatearen patu bezala. Izatearen historia pentsalari esentzialen hitzetan dator hizkuntzara. Horregatik da izatearen egian pentsatzen duen pentsatzea, pentsatze den aldetik, historikoa. Ez dago pentsatze «sistematiko» bat eta haren ondoan argitzeko iraganeko iritzien historia bat. Ez dago ordea ezta ere, Hegelek uste duen bezala, sistematika bat, bere pentsatzearen legea historiaren lege bihurtzen duena eta hau orobat sistema bilaka dezakeena. Badago, era jatorrizkoagoan pentsatuz, izatearen historia, non dagokion pentsatzea historia horren gogoratze bezala, berarengandik agitua. Gogoratzea esentzialki bereizten da historiaren eguneratze soiletik, iragan igaroaren zentzuan. Historia ez da gertatzen lehenbizi agitze bezala. Eta agitzea ez da denbora iragaitea. Historiaren agitzea izateagandik abiatuz, izatearen egiaren patu bezala garatzen da (ik. Hölderlinen «Wie wenn am Feiertage...» ereserkiari buruzko mintzaldia, 1941, 31. or.). Patuarengana dator izatea, hura, izatea, bera ematen den neurrian. Horrek esan nahi du, patuaren arabera pentsaturik: hura bera ematen da eta uko egiten dio une berean. Edozein modutan, historiari buruzko Hegelen zehaztapena «espirituaren» garapena bezala ez dago oker. Ez da halere, zati batean egia, eta bestean okerra. Hegeli esker lehen aldiz sistema batean bere esentzia pentsatu erabatekoa hizkuntzara dakarren metafisika egia den heinean da egia. Metafisika erabatekoa, Marxen eta Nietzscheren bidez izan duen iraultkarekin, izatearen egiaren historian aurkitzen da. Handik datorrena ezin da ez jo ez baztertu errefusapenen bidez. Onartu besterik ezin da egin, bere egia era jatorrizkoagoan izatean bertan berriro aterpetu eta giza iritzi soil baten esparrutik kentzen delarik. Pentsatze esentzialaren alorrean errefusapen oro ergelkeria da. Pentsalarien arteko borroka gauzaren beraren «borroka maitakorra» da. Elkarri laguntzen die gauzarekiko pertenezia soillean, non aurkitzen duten patuari dagokiona izatearen patuan.

Emanik ezen gizakiak izatearen egia etorkizunean pentsatu nahiko duela, orduan ek-sistentziatik abiatuz pentsatuko du. Ek-xistituz dago izatearen patuan. Gizakiaren ek-sistentzia, ek-sistentzia den aldetik, historikoa da, ez ordea gizakiarekin eta giza gauzekin denboraren igaroan hainbat gauza gertatu delako, edo horregatik bakarrik. Hain zuzen ere, hor-izatearen ek-sistentzia pentsatu behar duelako, ematen dio «S.u.Z.»en halako garrantzia pentsatzeak hor-izatearen historikotasuna espermentatzeari.

Baina ez al da esaten «S.u.Z.»en (212. or.), «hura ematen da» aipatzen denean: «Hor-izatea dagoen bezain luzaz ematen da izatea»? Bai, noski. Horrek esan nahi du: izatearen argiunea agitzen denean bakarrik, gaineratzen zaio gizakiari izatea. Baina Hor hori, argiunea izatearen beraren egia bezala, agitzen dela, izatearen beraren probidentzia da. Hauxe da argiunearen patua. Esaldiak, ordea, ez du esan nahi: gizakiaren hor-izatea existentia-ren tradiziozko zentzuan, eta azken aldi ego cogito-ren errealitate bezala pentsatua, dela baden hau, noren bidez izatea sortua izango den. Esaldiak ez du esaten, izatea gizakiaren ekoizpen bat denik. «S.u.Z.»en sarreran (38. or.) argi eta garbi dago eta are italikaz: «Izatea transcendens da besterik gabe». Espazio hurbiltasunaren irekitasunak gauza hurbil eta urrun oro, gauza horretatik begiraturaz, gaintzen duen bezala, hala dago izatea esentziari dagokionez baden oro baino haratago, argiunea bera delako. Honetan, izatea badenetik abiatuz da pentsatua, oraindik indarrean dagoen metafisika batentzat lehen begiratuan ezinbesteko den modu batean. Ikuspegi honetatik bakarrik azaltzen da izatea gaintze batean eta gaintze bezala.

Sarrerako «izatea transcendens da besterik gabe» xedapen hark laburbiltzen du esaldi sotil batean orain arte izatearen esentziak gizakia argitzeko zeukan modua. Atzeraka begiratzen duen izatearen esentziaren xedapen hau, badenaren argiunetik, argiune den aldetik, abiatuz egina, ezinbestekoa gertatzen da izatearen egiari buruzko galdera jarri nahi duen planteamendu honetarako. Horrela egiaztatzen du pentsatzeak patuzko bere esentzia. Oso urrun dauka hasieratik hasi nahia eta aurreko filosofia oro okertzen deklaratzeko asmoa. Baina, ea izatearen xedapenak, transcendens soil bezala, izatearen egiaren esentzia soil izendatzen duen, hori eta hori bakarrik da lehendabiziko galdera izatearen egia pentsatzen saiatzen den pentsatze batentzat. Horregatik esaten da 230. orrialdean ezen «zentzutik» abiatuz, hau da: izatearen egiatik abiatuz ulertu behar dela nolakoa den izatea. Izateak proiektu ekxstatikoan gizakia argitzen du. Halere, proiektu honek ez du sortzen izatea.

Bestalde, ordea, proiektua esentzialki proiektu jaurtiki bat da. Jaurtikitzen duena proiektatze honetan ez da gizakia, baizik izatea bera, gizakia hor-izatearen ek-xistentziara bere esentzia bezala bidaltzen du. Patu hau agitzen da izatearen argiune bezala, hala baita bera. Izatearekiko hurbiltasuna bermatzen du. Hurbiltasun honetan, «hor»-en argiunean bizi da gizakia ek-sistente bezala, gaur oraindik gauza ez delarik bizitza hori berariaz esperimentatu eta bereganatzeko. Izate«aren» hurbiltasuna, horretan baitatza hor-izatearen «hor» hori, «Sein und Zeit»-en arabera pentsatua izango Hölderlinen «Heimkunft» elegiari buruzko mintzaldian (1943), kantariaren poematik esandakoa jasoa eta izatearen ahanzturaren esperientziari jarraiki «aberria» deitua. Hitz hau zentzu esentzial batean izango da pentsatua hemen, ez era abertzalean, ez era nazionalistan, baizik izatearen historiaren arabera. Aberriaren esentzia, ordea, aipatzen da orobat gizaki modernoaren aberri-gabezia izatearen historiaren esentziaren arabera pentsatzeko asmotan. Nietzsche da aberri-gabezia hori esperimentatu duena. Ezin zion beste irtenbiderik aurkitu metafisikaren barruan, ez bada metafisikaren iraulketa. Baina irtenbiderik ezaren gailurra da hori. Hölderlin, ordea, bere «Heimkunft» idazten ari denean, kezkatu dago bere «aberkideek» han beren esentzia aurki dezaten. Hori ez du bilatzen inolaz bere herriaren egoismoan. Aldiz, mendebalaren patuaren partaide izatean ikusten du gehiago. Baina mendebala ez du hartzen eskualde moduan, sortaldetik berezirik okzidente bezala, ezta Europa bezala ere, baizik munduaren historiaren gisan jatorriarekiko hurbiltasunaren aldetik. Gu apenas hasi garen Hölderlinen poesian hitz bihurtu diren ekialdearekiko erlazio misterioei buruz pentsatzen (ik. «Der Ister», gainera «Die Wanderung», 3. ahapaldia eta hh.). «Alemana»ez zaio esaten munduari esentzia alemanaren bidez senda dadin, baizik alemanei esaten zaie, era horretan, patuz herrien arteko izanik, haiekin batera munduaren historian sar daitezten (ik. Hölderlinen «Andenken» poema, Tübinger Gedenkschrift 1943, 322. or.). Bizitza historiko honen aberria izatearekiko hurbiltasuna da.

Hurbiltasun honetan gauzatzen da, inondik ere, erabakia, ea eta nola jainkoak edo jainkoek uko egiten dioten eta gaua geratzen den, ea eta nola santuaren eguna argitzen den, ea eta nola santuaren hasieran jainkoaren eta jainkoen agertzea berriro has daitekeen. Santua, ordea, jainkotasunaren esentziaren espazioa dena, berak bere aldetik jainkoentzat eta jainkoarentzat neurria bermatzen duena, azaltzen da bakarrik, baldin aurretik eta prestakuntza luzean izatea bera argitu bada eta bere egian esperimentatua izan bada. Horrela bakarrik, izateetik abiatuz, hasten da aberri-gabeziaren gainditzea, non ez bakarrik gizakiak, baita gizakiaren esentzia ere galtzen den.

Era horretan pentsaturiko aberri gabezia datza badenaren izatea uztean. Izatearen ahazturaren seinalea da, horren ondorioz izatearen egia pentsatzeke geratzen delarik. Izatearen ahanztura bidenabar iragartzen da honetan, alegia gizakiak kontuan hartzen eta behin eta berriro erabiltzen duena badena dela. Baina hau egitean gizonak ezinbestean izatearen irudikapen bat eduki behar duenez, izatea ere adierazten da bakarrik badenaren «orokorrena», eta hartaz dena hartzen duena bezala, edo baden mugabakoaren sorkuntza bezala edo subjektu mugatu batek egin bezala. Une berean, eta aspaldiko garaietatik, «izatea» «badenaren» lekuan azaltzen da, eta alderantziz: biak nahasten dira eta oraindik pentsatu gabe dagoen nahasmen batean biltzen.

Egia xedatzen duen patu bezala, izatea ezkutuan geratzen da. Baina munduaren patua poesian iragartzen da, izatearen historia bezala oraindik errebelatu gabe. Horregatik, «Andenken» poeman hitzera iristen den Hölderlinen pentsatze historiko unibertsala era esentzialago batean da jatorrizkoago eta, hartaz, etorkizungaiago da Goetheren kosmopolitismoa baino. Horregatik beragatik, Hölderlinek grekoarekin duen zerikusia funtsean desberdina da humanismotik. Horregatik, Hölderlinen berri zuten gazte alemaniarrek, herri iritziak pentsaera alemaniar bezala jotzen zuenaren aldean zerbait erabat bestelakoa pentsatu eta bizi izan zuten heriotzaren aurrean.

Aberri gabezia patu unibertsal bilakatzen da. Horregatik beharrezko da patu hori izatearen historiaren arabera pentsatzea. Marxek, Hegeli jarraiki, zentzu esentzial eta garrantzizko batean gizakiaren alienazio bezala ulertu zuena, bere erroetan gizaki modernoaren aberri gabeziara iristen da. Aberri gabezia hau, eta inolaz izatearen patutik abiatuz, metafisikaren itxuran sortua izango da, haren bidez indartua eta une berean hark aberri gabezia bezala estalia. Marxek, alienazioa esperimentatuz, historiaren neurri esentzial batera sartzen duelako, horregatik historiari buruzko ikuspegi marxistak gainerako historiari gaina hartzen die. Baina, nola ez Husserlek, ez, nik orain artean ikusi dudanez, Sartrek historikotasunaren esentzialtasuna izatean ez duten ezagutzen, ez fenomenologoa ezta existentzialismoa ere ez dira iristen marxismoaz elkarrizketa emankor bat posible egingo lukeen alorrera.

Horretarako beharrezko da noski materialismoari buruzko ulermolde arinak eta hura jo beharko omen luketen errefusapen merkeak alde batera uztea. Materialismoaren substantzia ez datza dena materia dela soilik esaten duen iritzian, baizik aldiz xedapen metafisiko batean, noren arabera baden oro lanaren material bezala azaltzen den. Lanaren esentzia moderno-metafisikoa lehendik pentsatua zuen Hegelek «Espirituaren Fenomenologian» produkzio baldintzabakoa zuzentzen duen proiektu bezala, hau da: errealitatearen objektibatzea subjektu bezala esperimaturiko gizonaren bidez. Materialismoaren esentzia ezkututzen da teknikan, zeinaren kontura asko idazten baita baina gutxi pentsatzen. Teknika bere esentzian da ahazturan dagoen izatearen egiaren patu ontologiko-historikoa. Ez bakarrik izenagatik iristen da greziarren _____ra, baizik ontologiko-historikoki _____tik, __-en modu bezala, hau da badenaren agerian jartzearen modu bezala. Egiaren irudiketa bat den aldetik, teknika metafisikaren historian oinarritzen da. Hau berau bere aldetik da izatearen historiako aldi aparteko eta orain artean barrendu daitekeen bakarra. Har daiteke, nahi bada, postura era desberdinetan komunismoaren doktrinari eta haren oinarriari buruz, ontologiko-historikoki garbi dago haren baitan munduaren historiari buruzko esperientzia elemental bat azaltzen dela. «Komunismoa» bakarrik «partidu» bezala edo «mundu-ikuspegi» bezala hartzen duenak, «amerikanismoa» bizitzeko modu berezitat bakarrik –eta gainera mespretxuz– daukatenez bezain era motzean pentsatzen du. Arriskua, zinetara Europa gero eta nabarmenago bultzaturik aurkitzen den, beharbada honetan datza, alegia: ezer baino lehen bere pentsaerak –garai batean bere handitasuna zena– gainera datorren munduaren patuaren bide esentzialean atzera egiten duela, patu hori bere esentziatzko jatorrian Europak markaturik dagoelarik. Ez dago metafisikarik, dela idealista, dela materialista, dela kristaua, bere esentziaren arabera, eta inolaz ere ez garatzeko egiten dituen ahaleginen bidez, bere patua jaso dezakeenik, esan nahi baita: pentsatuz zentzu bete batean izatearena orain dena erdietsi eta bildu.

Gizakiaren aberri gabekia esentzialaren aurrean azaltzen zaio pentsatze ontologiko-historikoa gizakiaren etorkizuneko patua honetan, alegia: izatearen egiarako bide bat aurkitzen duela eta aurkitze horretarantz abiatzen dela. Noazionalismo oro metafisikoki antropologismo bat da, eta hartaz subjektibismoa. Nazionalismoa ez da gaingituko internazionalismo soil batez, baizik zabaldua eta sistema bihurtua izango da. Nazionalismoa horren bidez ez da eramana eta jaso izango humanitas izatera, indibidualismoa historiari gabeko kolektibismo baten bidez eramana eta jaso izango ez den bezala. Kolektibismoa da gizakiaren subjektibitatea osotasunean. Bere autobaieztapen baldintzabakoa burutzen du. Hori ezin daiteke atzera bota. Ezin esperimendu daiteke behar hainbat alderdi bat baino bideratzen ez duen pentsatze baten bidez. Alde guztietan biraka ari da gizakia, izatearen egiatik botea, bere buruaren inguruan, animal rationale denez.

Gizakiaren esentzia, ordea, datza honetan: bera gizaki soil baino gehiago izatean, nahiz hau izaki arrazoidun bezala aurkeztu. «Gehiago» ez da ulertu behar batuketa bezala, gizakiaren tradiziozko definizioak noski funtsezko xedapen bezala geratu beharko balu bezala, ondoren existentzialaren osagarri baten bidez hedapen bat ezagutzeko. «Gehiago» horrek esan nahi du: jatorrizkoagoa, eta horregatik, esentzialagoa esentzian. Baina hemen azaltzen da katramila: gizakia da jaurtikitasunean. Horrek esan nahi du: gizakia, ek-sistitzen den izatearen kontra-jaurtiketa den aldetik, hein horretan animal rationale baino gehiago da, hau bere burua subjektibitate bezala ulertzen duen gizakiarekiko erlazioan gutxiago den aldetik. Gizakia ez da badenaren jauna. Gizakia izatearen artzaina da. «Gutxiago» honetan gizakiak ez du horretan ezer galtzen, aldiz irabazi egiten du izatearen egian pausatuz. Artzainaren pobrezia esentziala irabazten du, haren duintasuna datzalarik izatearen aldetik bere egiaren zaintzaile izatera deitua izatean. Dei hau dator hor-izatearen jaurtikitasuna dakarren jaurtiketa bezala. Bere esentzia ontologiko-historikoa gizakia da badena, noren izatea, ek-sistentzia bezala, datzan izatearen hurbilean bizitzean. Gizakia da izatearen auzoa.

Baina, aspaldidanik kontraesan nahiko zenidan, gisako pentsatze batek ez al duen pentsatzen homo humanus-en humanitas? Ez al du pentsatzen humanitas honek orain artean inolako metafisikak pentsatu duen edo pentsa dezakeen baino zentzu erabakigarriago batean? Ez al da hau «humanismoa» zentzurik hertsienean? Bai, noski. Humanismo hori da gizakiaren gizatiartasuna izatearekiko hurbiltasunetik pentsatzen duena. Baina orobat da humanismoa, non ez gizakia, baizik gizakiaren esentzia historikoa bere jatorrian egiatik abiatuz jokoan dagoen. Baina ez al dago eta ez al dator joko horretara orobat gizakiaren ek-sistentzia? Halaxe da.

«S.u.Z.»en (38) esana dago ezen filosofiako galdera orok «existentziara bidaltzen duela atzera». Baina existentzia hemen ez da ego cogito-ren errealitatea. Ez da, ezta ere, bakarrik elkarrekin eta elkarrekiko eragiten eta era horretan beren baitara itzultzen diren subjektuen errealitatea. «Eksistentzia» da, existentzia eta «existence» ororen aldean, bizitza ek-statikoa izatearen hurbilean. Da beilaritza, haur da: izatearekiko ardura. Pentsatze honetan zerbait sotila pentsatu behar denez, horregatik hain zail gertatzen zaio hori filosofia bezala helaraziriko irudikatzeari. Baina zailtasuna ez datza zentzu sakon berezi bat bilatzean eta kontzeptu katramilatuak bilbatzean, baizik ezkututzen da atzerakako pausoan, zeinak esperimentatu beharreko galdera batean sartzen eta filosofiaren ohiko uste izatea bertan behera uzten duen.

Alde guztietan iritzen da «Sein und Zeit»en egindako ahalegina zokoitsu batean galdu dela. Utz dezagun iritzi hori bere hartan. «Sein und Zeit» titulua zeraman saiakeran urrats batzuk ematen saiatu zen pentsakerak gaur oraindik ez du hura gainditu. Baina bitartean auzira zerbait hurbilduko zen beharbada. Halere, filosofia etengabe saiatzen den bitartean pentsatzearen auziari, hau da: izatearen egiari eragozpenak jartzen, ziur egon daiteke bere auziaren gogortasuna hausteko arriskurik ez duela izango. Horregatik porrotari buruzko «filosofatzea» dago apartaturik amil baten bitartez porrot egiten duen pentsatsetik. Baldin honetan gizakiren batek arrakasta izango balu, ez legoke horretan zorigaitzik. Izatetik pentsatzeari etor lekiokkeen opari bakarra jasoko luke halakoak.

Baina hau ere baliozko da: pentsatzearen auzia ez da erdiesten «izatearen egiari» buruzko eta «izatearen historiari» buruzko berriketa bat martxan jarritz. Guztia datza honetan, alegia: izatearen egia datorrela hizkuntzara eta pentsatzea sar dadila hizkuntza horretan. Orduan hizkuntzak beharbada gutxiago eskatuko luke adierazte zalapartatsua isiltze zuzena baino. Baina gu, gaurkoon artean nork imajina lezake pentsatzeko bere ahaleginak isiltzearen bidexkan etxeko izan daitezkeenik? Urrun badoa, gure pentsatzeak beharbada izatearen egia seinala dezake eta hain zuzen ere pentsakizun bezala. Horrela uste eta iritze soilari ihes egin eta idazketaren eskulan urri bihurtura bidalia izango litzateke. Zerbait daukaten gauzak, betikotasunerako finkaturik ez badaude ere, nahikoa garaiz iristen dira, azken orduan iristen badira ere.

Izatearen egiaren esparrua zokoitsu bat ote den edo leku libre bat, non libertateak bere esentzia gordetzen duen: hori bakoitzak erabaki dezala, saiatu ondoren aipaturiko bidetik joaten edo, hobeto oraindik, bide hobe batetik joanez, auziari egoki dator kion bidea irekiz. «S.u.Z.»eko azkenaurreko orrialdean (437. or.) datoz esaldiok: «Izatearen (hau da, ez badenaren, ezta gizakiaren izatearen ere) ulerkerari dagokion *eztabaida* ezin erabaki daiteke, *oraindik piztu ere piztu ez delako*. Eta piztu ere ezin daiteke, *eztabaida* pizteak prestaketa eskatzen baitu aurretik. Honetara jotzen du ikerketa honek». Esaldi hauek baliozko dira gaur oraindik, hogeitun urte pasa ondoren. Jarrai dezagun datozen egunetan oraindik bidean ibiltari bezala izatearen auzoan. Zuk egiten duzun galderak bidea zehazten laguntzen du.

Zuk galdetzen duzu: Comment redonner un sens au mot «Humanisme»? «Zein eratan eman dakioke berriro zentzu bat humanismo hitzari?» Zure galderak ontzat ematen du ez bakarrik «humanismo» hitza gorde nahi duzula, baizik aitorten bat ere badator horrekin: hitz horrek bere zentzua galdu egin duela.

Zentzua galdu du iritzi, ezen humanismoaren esentzia metafisikoa dela eta horrek esan nahi du orain ezen metafisikak ez bakarrik ez duela egiten izatearen egiari buruzko galdera, baizik hura eragotzi egiten duela, metafisika izatearen ahanzturan setatu den neurrian. Baina, hain zuzen ere, humanismoaren esentzia zalantzazko horri buruzko iritzira garamatzen pentsaerak berak eraman gaitu gizakiaren esentzia era jatorrizkoagoan pentsatzera. Homo humanus-en humanitas esentzialago honi dagokionez, humanismo hitzari historiaren arabera zahar den baino zaharrago den zentzu historiko bat berriro emateko posibilitatea sortzen da. Berriro emate hori ez da ulertu behar «humanismo» hitzak zentzurik batere ez balu bezala eta flatus vocis soil bat balitz bezala. «Humanum»-ek hitzean humanitas seinalatzen du, gizakiaren esentzia. «...ismo» horrek seinalatzen du gizakiaren esentzia esentzial bezala hartu beharko litzatekeela. Zentzu hori dauka «humanismo» hitzak, hitz bezala. Zentzu bat berriro emateak esan nahiko luke: hitzaren zentzua berriro zehaztea. Horrek bere aldetik eskatzen du gizakiaren esentzia era esentzialagoan esperimintatzea; beste aldetik, ordea, erakustea zenbateko neurrian esentzia hau, bere erara, patuaren arabera den. Gizakiaren esentzia ek-sistentzia datza. Hauxe da kontua esentzialki, alegia izatetik abiatuz, izateak gizakia, eksistente den aldetik, izatearen egiaren zainzailetarako honetan bertan agitzen duen neurrian. «Humanismoak» esan nahi du orain, baldin hitza gordetzea erabakitzen

badugu: gizakiaren esentzia izatearen egiarako esentziala da, halako moduan, hain zuzen ere, non gizakiak, gizaki bezala soilik harturik, ez duen balio. Era horretan era bitxiko «humanismoa» pentsatzen dugu. Hitzak izenburu bat eskaintzen du «lucis a non lucendo» bat dena.

«Humanismo» hau, orain arteko humanismo guztien kontra azaltzen dena, baina une berean inondik ere inhumanoaren bozeramale egiten ez dena, oraindik «humanismo» deitu behar al dugu? Eta hori bakarrik, subjektibismo metafisikoan itotzen eta izatearen ahanzturan hondoraturik dauden korrante nagusietan izenburuaren erabileran parte hartuz, agian batera igerian egiteko? Edota pentsatzea saiatu behar da, «humanismoaren» kontrako jazarpen ireki baten bidez bultzada bat ematen, honek ekar ahal dezan, homo humanus-en humanitas-i eta haren oinarriari buruz arreta erakartzea? Horrela zinez, munduko historiako une honek dagoeneko horretara bultzatuko ez baligu ere, ezagutza esna lezake, ez bakarrik gizakiarengan, baizik gizakiaren «naturan» ere, ez bakarrik naturan, baizik oraindik pentsatzen du hasieragoko neurrian, non gizakiaren esentzia, izateetik bertatik abiatuz zerturik, etxeko den. Ez ote genuke hobe baldin denborale baterako, izateari eta denborari buruzko pentsatzearen bideak orain artean izan dituen ezinbesteko okerrak jasatea eta astiro berenez ahitzen uztea? Oker horiek irakurri denaren edota soilik irakurri aurretik jakin uste dela pentsatu denaren errainua dira. Denek erakusten dute egitura bera eta oinarri bera.

«Humanismoaren kontra hitz egiten delako, beldur izan ohi da ez ote den egingo inhumanoaren defentsa eta gogorkeria gogorrenaren gorespena. Zer da, izan ere, «logikoagoa» hau baino, alegia: humanismoa ukatzen duenari basakeriaren baieztapena besterik ez zaiola geratzen esatea baino?

«Logikaren» kontra hitz egiten delako, uste da, eskakizun bat egiten dela, ezen pentsatzearen zorrotasuna ukatzen dela, eta horren ordez grinena eta sentsazioen nahikeria agintzen jartzen dela eta era horretan «irrazionalismoa» egia bezala hots egiten dela. Zer da, izan ere, «logikoagoa» hau baino, alegia: logikaren kontra hitz egiten duena alogikoaren alde egotea baino?

«Balioen» kontra hitz egiten delako, izutu egiten da ustez gizatasunaren balio gorenenak mespretxatzen den filosofia baten kontura. Zer da, izan ere «logikoagoa» hau baino, alegia: balioak ukatzen dituen pentsakera batek dena derrigor balioakotzat jotzea baino?

Esaten delako gizakiaren izatea «munduan-izatea» dela, uste da ezen gizakia hemengo esentzia soil batera eraitzia dela, era horretan filosofia positibismora amiltzen delarik. Zer da, izan ere, «logikoagoa» hau baino, alegia: gizakiaren mundukotasuna baieztatzen duenak, hemengo aldekoa bakarrik hartzen duela baliozkotzat eta beste aldekoa ukatzen eta «traszendentzia» oro zapuzten?

Nietzscheren «Jainkoaren Heriotza» aipatzen delako, jokaera hori ateismotzat aldarrikatzen da. Zer da, izan ere, «logikoagoa» hau baino, alegia: «Jainkoaren Heriotza» esperimintatu duena jainkobakotzat jotzea baino?

Aipatu den guztian, gizadiaren ustez garai eta santu denaren kontra hitz egin delako, filosofia honek irakasten du «nihilismo» arduragabe eta hondatzaile bat. Zer da, izan ere, «logikoagoa» hau baino, alegia: ezen baden egiazkoa era horretan alde guztietan ukatzen duena, ezdenaren aldean jartzen dela eta horrela ezerez soilaren errealitatearen zentzu bezala hots egiten duela baino?

Zer gertatzen da hemen? Entzuten da aipatzen «humanismoa», «logika», «balioak», «mundua», «Jainkoa». Horren kontrako oposizio bat aipatzen da. Aipaturikoa baikor bezala ezagutzen eta hartzen da. Aipaturikoaren kontra, ongi pentsatu gabe halere, entzundakoagatik esaten dena, hartzen da segituan haren ukazio bezala eta hau «ezkor» bezala, desegintzailearen zentzuan. «S. u. Z.»en, non edo han, aipatzen da zuzenean «desegintza fenomenologikoa». Irizten da, asko inbokaturiko logikaren eta ratio-ren laguntzaz, baikor ez dena, ezkor dela eta era horretan arrazoia iraitzera iristen dela eta horregatik irabazten dela, doilorkeria bat balitz bezala, suz markatua izatea. Hain daude «logikaz» beteak, non segituan ustearen ohiko lozorroaren kontra doan guztia kontrako gaitzesgarritzat jotzen den. Baikor ezagun eta kutunean ez dagoen guztia bota egiten da lehendik prestaturik dagoen ezkortasun soilaren zulora, honek dena desegiten duelarik, eta horrela ezerezean amaitzen eta nihilismoa burutzen. Bide logiko horretan, logikaren laguntzaz aurkitu den guztia nihilismo batean galtzen uzten da.

Baina ohiko ustearen kontra pentsaera batek sortzen duen «kontra» horrek ba al daki derrigor ukapen soilera eta ezkorra jotzen duela? Hori gertatzen da bakarrik, eta ezinbestean eta behin betiko gainera, hau da: beste ezerearen ikuspeirik gabe, baldin alde aurretik ustekizuna «baikorra» bezala jartzen bada eta hortik jazarpen posibleen alorraren gainetik haren arabera erabatean eta orobat ezkerki

erabakitzen bada. Jokabide horretan ezkututzen da alde aurretik «baikortzat» jo dena, eta harekin batera jarkera eta jazarpena –hietetan salbu zela uste baitzuen– gogoeta baten menpe ezartzearekiko ezezkoa. Etengabe logikari dei eginez pizten da susmoa pentsatzeari erabat emana dagoela, pentsatzeari uko egin zaionean.

Zerbait argiago geratu beharko zukeen «humanismoaren» kontrakoak inolaz ere ez dakarrela inhumanoaren defentsa, bestelako ikuspegiak irekitzen dituela baizik.

«Logikak» pentsatzea ulertzen du badenaren irudikapena bere izatean, izate bat irudikapenak kontzeptuaren orokortasunean ematen duena. Baina zer gertatzen da izateari berari buruzko gogoetarekin, hau da, izatearen egia pentsatzen duen pentsatzearekin? Pentsatze hau dagokio lehenbizi Platonengan eta Aristoteles, «Logikaren» sortzailearengan dagoeneko hobiratu eta galdu zen _____-en jatorrizko esentziari. «Logikaren» kontra pentsatzea, horrek ez du esan nahi ezlogikoaren alde borrokatzea, baizik esan nahi du bakarrik: logosari eta pentsatzearen lehen garaian azalduriko bere esentziari buruz gogoetatzea, hau da: hasteko gisako gogoeta baten prestaketan saiatzea. Zertarako behar ditugu logikako sistemak, nahi adina luzeak, baldin alde aurretik _____-en esentziari buruz galdetzearen egitekoari, jakin gabe ere, ihes egiten badiote? Baldin eragozpenak itzuli nahi balitzaizkie –hori alferrikakoa da–, orduan arrazoi handiagoz esan zitekeen: irrazionalismoak, ratio-ren ukapen bezala, ezezagun eta eztabaidariki gabe, agintzen du «logikaren» defentsan, honek uste baitu iskin egin egin diezaiokeela _____-ari eta harengan oinarritzen den ratio-ren esentziari buruzko gogoetari.

«Balioen» kontrako pentsaerak ez du esaten, «balio» bezala aldarrikatzen den guztia –«kultura», «arte», «zientzia», «giza-duintasuna», «mundua», «Jainkoa»– baliorik gabeko denik. Aldiz, kontua da azkenik ikustea, zerbait «balio» bezala estimatuz, era horretan balioztatuari bere duintasuna kentzen zaiola. Esan nahi baita: zerbait balio bezala estimatuz balioztatua gizakiaren estimuaren objektu bezala bakarrik onartzen dela. Baina, zerbait bere izatean dena ez da ahitzen bere objektibotasunean, ezta objektutasunak balioaren izaera badu ere. Balioztatze oro, baita era baikorrean balioztatuta ere, subjektibatze bat da. Ez du uzten badena: izan, baizik bazlitzatzeak badenari uzten dio baliozko izaten bere jardutearen objektu bezala bakarrik. Balioen objektibitatea egiaztatzeko ahalegin bitxiak ez daki zer egiten duen. «Jainkoa» erabat «balio goren» bezala aldarrikatzen denean, hori Jainkoaren esentziaren gutxieste bat da. Balioetan pentsatzea, hemen eta bestetan, izatearekiko pentsa daitekeen biraorik handiena da. Balioen kontra pentsatzeak, beraz, esan nahi du ez badenaren baliogabeziaren eta ezereztasunaren alde danborra jotzen aritzea, baizik esan nahi du: badenaren subjektibatzea objektu soil bihurtzearen kontra, badenaren egiaren argiunea pentsatzearen aurrera ekartzea.

«Munduan-izatera» bidaltzea, homo humanus-en humanitas-en ezaugarri nagusiak ez du adierazi nahi gizakia azken batean esentzia «mundutar» bat dela, zentzu kristauan ulerturik, beraz Jainkoagandik apartaturik eta «transzendentziatik» erabat askaturik. Hitz honekin adierazi nahi da «transzendente» hitzarekin garbiago adieraziko litzatekeena. Izate sentsibleez gaindi dena da transzendentea. Hau hartzen da baden goren bezala, baden ororen lehen kausaren zentzuan. Lehen kausa hau bezala, Jainkoa da pentsatua. «Mundu» «munduan-izan» izenean ez du inondik ere adierazi nahi baden «lurtiarra», «espiritualetik» bereziz. «Mundu» ez du esan nahi inolaz baden bat zehaztaper honetan, eta ezta ere badenaren esparru bat, baizik izatearen irekitasuna. Gizakia da eta da gizaki, bera ek-sistitzen dena den neurrian. Dago izatearen irekitasunaz gaindi, irekitasuna izaki izatea bera da, honek, jaurtiketa den aldetik, gizakiaren esentzia «arduran» bota duelarik. Era horretan jaurtikia dago gizakia izatearen irekitasun«ean».

«Mundu» da izatearen argiunean, non gizakia, bere esentzia jaurtikiaren arabera altxatzen den. «Munduan-izateak» ek-sistentziaren esentzia izendatzen du, begien aurrean edukiz dimentsio argitua, nondik eksistentziaren «ek» hori hedatzen den. Ek-sistentziatik abiatuz pentsaturik, «mundu» da, hein batean, hain zuzen beste aldea eksistentziaren barruan eta eksistentziarentzat. Gizakia ez da sekula lehenbizi gizaki munduaren honuzkaldean «subjektu» bat bezala, hori «ni» bezala edo «gu» bezala ulerturik ere. Ez da ezta ere lehenbizi eta bakarrik subjektu, egiaz beti orobat objektuaz zerikusia duena, bere esentzia subjektu-objektu erlazioan legokeelarik. Aldiz gizakia da lehenbizi bere esentzian eksistente izatearen irekitasunean, ireki horrek «bitartea» argitzen duelarik, zeinaren barruan subjektutik objektuarekiko «erlazio» bat «izan» baitaiteke.

Esaldi honek: gizakiaren esentzia datza munduan-izatean, ez dakar inolako erabakirik honako puntu honetan, alegia: ea gizakia zentzu teologiko-metafisikoan honuzkaldeko esentzia bat bakarrik den edo bestaldeko esentzia bat den.

Gizakiaren esentziaren zehaztapen existentzialaren bidez, horregatik, ez da ezer erabaki oraindik «Jainkoaren hor-izateari» buruz edo bere «ez-izateari» buruz, are gutxiago oraindik jainkoen posibilitateari edo ezinezkotasunari buruz. Horregatik ez bakarrik da lasterregia, baizik eta areago da okerra, esaten bada gizakiaren esentziaren ulertzea esentzia honek egiarekiko duen erlaziotik abiatuz ateismoa dela. Mailakatze bidegabeko honek gainera irakurketaren arreta falta salatzen du. Ez dio axolik ezen 1929az geroztik, «Vom Wesen des Grundes» idatzian (28. or. 1. oharra) honako hau datorrela: «Hor-izatea, munduan-izatea bezala, era ontologikoan interpretatuz ez positiboki ez negatiboki erabakitzen da ezer Jainkoarekiko izate posible bati buruz. Bai, ordea, erdietsiko da transzendentzia argituz lehen aldiz *hor-izatearen kontzeptu nahikoa egoki* bat, eta hura kontuan hartuz orain galde daiteke zein erlazio daukan ontologikoki hor-izateak jainkoarekiko». Baldin, oharkizun hau, ohi bezala, laburregi pentsatzen bada, adieraziko da: filosofia honek ez du erabakitzen ez jainkoaren hor-izatearen alde, ez kontra. Inoragabe geratzen da. Beraz, ez dio axolik arazo erlijiosoak. Gisako inoragabetasuna nihilismoaren mende erortzen da.

Baina aipaturiko oharkizunak irakasten al du indiferentismoa? Zergatik, orduan, idazten dira hitz jakin batzuk, eta ez edozein, oharretan italikaz? Besterik gabe, adierazteko izatearen egiari buruz pentsatzen duen pentsatzeak metafisikak galde dezakeen baino era jatorrizkoagoan galdetzen duela. Izatearen egiatik abiatuz pentsa daiteke bakarrik sagaratuaren esentzia. Sagaratuaren esentziatik abiatuz bakarrik pentsa daiteke jainkotasunaren esentzia. Jainkotasunaren esentziaren argitan bakarrik pentsa eta esan daiteke «Jainko» hitzak izendatu behar duena. Edo, ez al ditugu bada hitz hauek guztiak ulertu eta entzun behar, guk, gizaki bezala, hau da: esentzia eksistente bezala, gizakiarekiko Jainkoaren erlazio bat esperimentatu ahal izateko? Hola galde dezake gaurko munduko historiako gizakiak serio eta zorrotz ea Jainkoa hurbiltzen edo urruntzen den, baldin gizakiak alde batera uzten badu ezer baino lehen galdera hau egin daitekeen dimentsioan pentsatzea bera? Hori, izan ere, sagaratuaren dimentsioa da, zeina dimentsio bezala itxita geratzen den, baldin izatearen irekia argitua ez bada eta haren argiunean gizakiarengandik hurbil ez badago. Munduaren garai honen ezaugarri nagusia beharbada sagaratuaren dimentsioarekiko itxitasunean datza. Beharbada hauxe da zorritzar bakarra.

Baina ohar honen bidez, izatearen egiara –pentsatu beharreko den aldetik– bideratzen duen pentsatzeak ez luke inondik ere teismoaren alde erabaki nahi. Teista izan ezin daitekeen bezala, ateo ere ezin izan daiteke. Baina ez jarrera indiferente batengatik, baizik pentsatzeari, pentsatze bezala jarri zaizkion mugei jaramon egiten zaielako, eta hain zuzen ere pentsa beharreko bezala ematen zaionaren bidez, izatearen egiaren bidez. Pentsatzea bere egitekora mugatzen den neurrian, gaurko munduko patuaren unean ematen dio gizakiari agindu bat bere egonaldi historikoaren dimentsio jatorrizkoagoan. Era horretan pentsatzeak izatearen egia esaten duenean, balio oro eta baden edozein baino esentzialago denaren esku jarri da. Pentsatzeak ez du gainditzen metafisika hura hau baino gorago jarritz, hari gaina hartu eta non edo han altxatzen duelako, hurbilenaren hurbilera jaisten delako baizik. Gizakiak subjektibitatean bidea galdu duen lekuan da zailagoa eta arriskutsuagoa jaitsiera igoera baino. Homo humanus-en eksistentziaren pobrezia darama jaitsierak. Ek-sistentzian metafisikako homo animalis-en esparrua utzi egingo da. Esparru horren gailentasuna da biologismo deitu ohi den horren baina baita ere pragmatismo deituraz ezagutzen den horren itsutasun eta nahikeriarako arrazoi zeharkako eta aspaldikoa. Izatearen egia pentsatzeak esan nahi du orobat: homo humanus-en humanitas pentsatzea. Balio duena humanitas da, izatearen egiaren zerbitzuan, baina humanismorik gabe zentzu metafisikoan.

Baina humanitas hain esentziala baldin bada izatea pentsatzeko, ez al zaio «ontologiari» «etika» gaineratu behar? Ez al da orduan esentziala zuk zure esaldian adierazten duzun ahalegina: «Ce que je cherche à faire, depuis longtemps déjà, c'est préciser le rapport de l'ontologie avec une étique possible»?

«S. u. Z.» azaldu eta berehala, adiskide gazte batek galdetu zidan: «Noiz idatziko duzu etika bat?» Gizakiaren esentzia hain esentzialki, hau da, izatearen egiari buruzko galderaren arabera pentsatua denean, horretan ordea gizakia badenaren muin bihurtua ez denean, esnatu egingo da ezinbestean loturazko izango den indikazio baten eta eksistentziatik izatera doan gizaki esperimentatu batek, patuari dagokionez, nola bizi behar duen esango dioten arauen eskakizuna. Etika baten desioak bultzatzen du hainbat eta indartsuago gauzatze bila, zenbat eta gizakiaren nahasmendu agerikoa bezala ezkutukoa ezin

neurtzeraino igotzen denean. Etikaren bidezko loturari arreta osoa eskaini behar zaio, izan ere teknikako gizakia, aldrara abandonaturik, bere asmoei eta egintzei teknikarekin bat datorren antolakuntza baten bidez bakarrik eskain diezaieke egonkortasun ziurra.

Nork ahanz dezake larrialdi hau? Ez al ditugu gorde eta bermatu behar lehendik dauden loturak, nahiz gizakia bateraturik eusteko modua hain premiatsua eta une honetarako soilik izan? Bai horixe. Baina premia horrek kentzen al dio pentsatzeari pentsa dezan pentsatzeko dagoena eta, izate den aldetik, alde aurretik baden ororentzat berme eta egia dena? Pentsatzeak, areago, bizkar eman al diezaioke izate pentsatzeari, hau ahaztura luzean ezkutuan egon eta munduko une honetan baden oren dardararen bidez iragartzen denean?

«Ontologiaren» eta «etikaren» arteko zerikusiak zehatzako zehaztu aurretik, galdetu behar dugu ea zer diren «ontologia» eta «etika» berenez. Beharrezko izango da pentsatzea ea, bi izenburuek aipatzen dutena pentsatzeari izendatu zaionarekin bat datorren eta hari hurbil datorkion, pentsatzeak ezer baino lehen izatearen egia pentsatu behar duenean.

«Ontologia» bezala «etika» ere, ikaskarietatik datorren pentsatze oro galkorra izango balitz eta horren bidez gure pentsatzea zorrotzagoa, zertan legoke orduan aipaturiko filosofiako bi ikaskarien arteko erlazioari buruzko auzia?

«Etika» logikarekin eta «fisikarekin» batera lehen aldiz Platonen eskolan azaltzen da. Ikaskari hauek sortzen dira pentsatzea «filosofia» bihurtzen den garaian, filosofia bere aldetik _____ (zientzia) eta zientzia bera eskolako eta eskolako ariketa kontua bihurtzen denean. Era horretan ulerturiko ibilbidean sortzen da zientzia, pentsatzea suntsitzen da. Garai horretako pentsalariak ez dute ezagutzen ez «logika» bat, ez «etika» bat, ez «fisika» bat ere. Hala eta guztiz beren pentsatzea ez da ez ezlogikoa, ez ezmorala ere. _____ ordea, halako sakontasun eta zabaltasun batean pentsatzen zuten, non geroko «fisika» guztiek ez zuten halakorik gehiago erdietsi ahal. Sofoklesen tragediek, halako konparazio bat zilegi bada, beren esanean Aristotelesen «etikari» buruzko irakaskuntza guztian baino era jatorrizkoagoan gordetzen dute _____-a. Hiru hitzez bakarrik osatua dagoen Heraklitoren esakun batek esaten du gauza hain ximple bat, non handik ethosaren esentzia zuzenean argira datorren.

Heraklitoren esakunak honela dio (119. zatikia): _____ . Hori itzuli ohi da: «Bere izaera propioa da gizonarentzat bere demonioa». Itzulpen honek era modernoan pentsatzen du, ez grekoan. _____ hitzak egoitza esan nahi du, bizilekua. Gizakia non bizi den, leku ireki hori izendatzen du hitzak. Bere egoitzaren irekiak agerian uzten du gizakiaren esentziari datorkiona eta hartaz etorri bere hurbilean geratzen da. Gizakiaren egoitzak gordetzen eta zuintzen du gizakiari bere esentzian dagokionaren etorrera. Hori da, Heraklitoren hitzaren arabera, _____, jainkoa. Esakunak dio: gizakia bizi da, gizakia den neurrian, jainkoaren hurbilean. Esakun honekin, Aristotelesek dakarren (de part. anim. A 5, 645 a 17) historia batekin bat dator Heraklito. Honela dio:

«Heraklitoren kontura kontatzen da berarengana joan nahi zuten arrotzei esan omen zien hitz bat. Hurbiltzen ari zirela ikusi zuten nola ari zen berotzen labe batean. Harrituta gelditu omen ziren eta hori bereziki, dudakor zeudelarik, adorea eman eta sartzeko esan omen zien, hitz hauekin: «Hemen ere jainkoak presente daude noski».

Kontakizuna berez mintzo da, baina nabarmen dezagun zerbait.

Bisitari arrotzen multzoa, beren pentsalariarekiko jakin-minezko ozarkerian, bere egoitza lehen aldiz ikustean, txundituta eta zer egin ezin asmatu dago. Uste dute pentsalaria aurkitu behar dutela, gizakien ohiko bizimoduan ez bezala salbuespenaren eta bitxiaren, eta hartaz kitzikagarriaren ezaugarriak alde guztietan dituela. Jendetzak uste du, pentsalariari bisita eginez aurkituko dituela gauza batzuk – denbora jakin batera behintzat– berriketa dibertigarri baterako aukera eskainiko diena. Pentsalaria bisitatu nahi duten arrotzek espero dute beharbada gogoeta sakonean murgildurik dagoela pentsatzen ikusiko dutela. Bisitariak hori «bizi nahi dute», ez noski pentsalariaren aldetik ukituak daitezen, baizik, azken batean, esan ahal izateko pentsalaria omen dela esaten den bat ikusi eta entzun dutela.

Horren ordez, nonzeberrizaleek Heraklito ikusten dute labearen ondoan. Ohiko leku bat da inolaz, itxura handirik gabekoa. Hemen ogia egosten da. Baina Heraklito ez dago ogi egiten ere labean. Berotzen dago, besterik gabe. Horrela, ohiko leku horretan bere bizitzaren estutasun guztia salatzen du. Hotzak dardaraz dagoen pentsalariaren ikuskizunak interes gutxi eskaintzen du. Nonzeberrizaleek ikuskizun

etsigarri horren aurrean gehiago hurbiltzeko gogoia galtzen dute. Zer egin behar dute han? Gertakari ohiko eta graziarik gabe hau, bat hotzak egotea eta suaren aurrean egotea, edozeinek ikus dezake etxean nahi duenean. Zertarako bilatu behar dute, orduan, pentsalari bat? Bisitariak berriro alde egiteko prestatzen dira. Beren aurpegieta ikusi zuen Heraklitok beren jakin-min etsia. Ezagutzen du jendetzan aski dela espero den sentazio batek huts egitea, iritsi berriek berriro segituan atzera egin dezaten. Horregatik anlimatzen ditu. Horregatik bultzatzen ditu sar daitezen, hitz hauekin: _____: «Jainkoak hemen ere presente daude».

Hitz honek pentsalariaren egoitza eta haren jarduera beste argi batean jartzen du. Kontakizunak ez du esaten ea bisitariak segituan hitz hau inolaz ulertu zuten eta ondoren dena beste argi batean beste era batera ikusi ote zuten. Baina historia hau kontatua izan dela eta gureganaino iritsi dela datza honetan, alegia kontatzen duena pentsalari honen inguruetik etortzean eta bera zertzean. _____, «hemen ere», labe ondoan, leku arrunt honetan, non gauza bakoitza eta egoera bakoitza, egite eta pentsatze bakoitza ezaguna eta arrunta den, hau da ohiko den, «han bertan ere», ohikoaren ingurunean _____ hala da, «ezen jainkoak presente daudela».

_____, esaten du Heraklito berak: «Egoitza (ohikoa) da gizakiarentzat irekia jainkoaren (ez-ohikoaren) presentziarentzat».

Etika izenak, _____ hitzaren funtsezko esanahiaren arabera, esan nahi badu gizakiaren egoitza pentsatzen duela, orduan izatearen egia gizakiaren –existentente den aldetik– osagai jatorrizko bezala pentsatzen duen pentsatze hori da dagoeneko jatorrizko etika. Pentsatze hori, ordea, ez da etika ere, ontologia delako. Izan ere ontologiak beti pentsatzen du badena () bakarrik bere izatean. Hartaz, izatearen egia pentsatua ez den bitartean, ontologia oro bere oinarri gabe geratzen da. Horregatik «S. u. Z.»ekin izatearen egian aurrepentsatzen saiatzen zen pentsatzea, ontologia fundamental bezala zertu zen. Ontologia hori saiatzen da atzera egiten oinarri esentzialera, handik baitator izatearen egiaren pentsatzea. Beste galdetze modu bat sartze hutsarekin jada pentsatze hori aterea da metafisikaren «ontologiatik» (Kantena bera ere barne). «Ontologia» ordea, dela transzendentala edo kritika-aurrekoa, ez da erortzen kritikaren azpian badenaren izatea pentsatzen duelako eta horrela izatea kontzeptura behartzen duelako, baizik izatearen egia ez duelako pentsatzen eta horrela ahazten duelako badela pentsatze bat kontzeptuzkoa baino zorrotzagoa dena. Izatearen egian aurrepentsatzen saiatzen den pentsatzeak lehen hurbilketaren premian erabat bestelako dimentsiotik zati nimiño bat baino ez dakarkio hizkuntzari. Hizkuntza faltsotu egiten da oraindik bera, lortzen ez duen neurrian oraindik ikuste fenomenologikoaren laguntza esentziala eustea eta orobat «zientziarekiko» eta «ikerketarekiko» asmo gehiegizkoa ukatzea. Halere pentsatzearen ahalegin hau indarrean dagoen filosofiaren barruan ezagutarazteko eta orobat ulergarri egiteko, hitz egin beharko zen lehenbizi gaur dagoenaren horizontetik eta hari ohiko zaizkion terminoak erabiliz.

Bien bitartean, ikasi dut jabetzen hain zuzen ere termino horiek zuzenean eta erremediorik gabe okerrera eramaten dutela. Izan ere, terminoak eta haiei dagozkien hizkuntz-kontzeptuak ez zituzten irakurleek

berriro pentsatu lehenbizi pentsatu beharreko gauzaren arabera, baizik gauza hau aurkeztua izan zen beren ohiko esanahian gorderiko terminoen arabera. Izatearen egiaz galdetzen eta hala izateetik abiatu eta beronen arabera gizakiaren egoitza esentziala finkatzen duen pentsatzea ez da ez etika ezta ontologia ere. Horregatik, bien arteko zerikusiar buruzko galderak esparru honetan ez dauka funtsik gehiago. Halere, zure galderak, era jatorrizkoagoan pentsaturik, badu zentzu bat eta pisu esentzial bat.

Galdetu egin behar baita, izan ere: baldin pentsatzeak, izatearen egiaz pentsatuz, humanitas-en esentzia ek-sistentzia den aldetik, izatearekiko honek duen pertenezaren arabera finkatzen badu, pentsatze hau da betiere izatearen eta gizakiaren irudikatze teoriko bat soilik, edo gisako ezagutza batetik atera al daiteke irakatsi erabilgarri lan-bizitzarako?

Erantzunak dio: pentsatze hau ez da ez teorikoa ez praktikoa. Bereizkuntza honen aurretik gertatzen da. Pentsatze hau da –den neurrian– izatea gogoetatzea eta ez besterik. Izateari atxikia, izatearen aldetik bere egiaren zainketara jaurtikia denez eta hark eskatua denez, izatea pentsatzen du. Gisako pentsatzeak ez dauka ondoriorik. Ez dauka eraginik. Bere esentzia asetzen du, badenez gero. Baina da, esateko auzia esaten duenez gero. Pentsatzearen auziari dagokio, une historiko bakoitzean, bere auziari dagokion esate bakar bat. Auziarekiko obligazioa esentzialki goragokoa da zientzien balioa baino, libreagoa delako. Izateari uzten baitio... izaten.

Pentsatzeak lan egiten du eraikitzen izatearen etxea, zeinaren bidez izatea, lotzen duena den aldetik, agintzen dio aldioro gizakiaren esentziari, patuaren arabera, izatearen egian bizi dadin. Bizitza hau da «munduan-izatearen» esentzia (ik. «S.u.Z.», 54. or.). Hango oharra «...an izan» «bizitzea» bezala, ez da jostakeria etimologiko bat. Oharra 1936ko hitzaldian Hölderlinen hitzei buruz: «Irabaziz betea, baina poesiari dagokionez bizi da / gizakia lur honetan», ez da zientzia utzita poesian salbatzen den pentsatze baten apainduria. Izatearen etxeari buruz hitz egitea ez da «etxearen» irudia izatera aldatze bat, aldiz: izatearen esentzia, auziari dagokionez, pentsatuaren arabera egunen batean pentsatu ahal izango dugu zer diren «etxea» eta «bizitzea».

Edozein modutan, pentsatzeak ez du sortzen izatearen etxea. Pentsatzeak eksistentzia historikoa gidatzen du, hau da: homo humanus-en humanitas, salbatuaren igoeraren esparruan.

Salbatuarekin batera azaltzen da izatearen argiunean gaizkia. Bere esentzia ez datza gizakiaren jardueraren gaiztotasun soilean, baizik basatasunaren gaiztakerian. Biak, salbatua eta basa izatean egon daitezke bakarrik izatea bera borrokaleku den neurrian. Han ezkututzen da ezereztearen jatorri esentziala. Ezereztatzen duena argitzen da ezerezeko bezala. Hori «ez» batean adieraz daiteke. «Ezereza» ez dator inondik ere ukapeneko ez-esatetik. «Ez» orok, ez bakarrik subjektibitatearen indar ezartzailean lehiatze setatsu bezala oker irizten denak, baizik izaten uzten duen eksistentziaren izatea denak, erantzuten dio ezezte argituaren eskakizunari. Ez oro ezetzaren baieztatze baino ez da. Baieztapen orok onartzean dauka oinarria. Honek, zertaz diharduen, hura berarengana etortzen uzten du. Uste ohi da ezezte ezin aurki daitekeela inon badenean. Hori hala da, ezezte baden zerbait bezala, badenean baden tasun bat bilatzen den bitartean. Baina era horretan bilatuz, ez da bilatzen ezezte. Izatea bera ere ez da baden tasun bat, badenean egiazta daitekeena. Orobat izatea baden oro baino badenago da. Ezezte izatean bertan garatzen da, horregatik ezin dugu sumatu baden zerbait bezala badenean. Gaineraezinezkotasun horren aipua ez du ziurtatzen ezetzaren jatorria ez-esatetik. Froga honek balio du, dirudienez, badena subjektibitatearen objektibo bezala jartzen denean. Orduan ondorioztatzen da alternatibatik, ezen ezetz orok, zerbait objektibo bezala azaltzen ez delako, zalantzarik gabe subjektuaren egintza baten emaitza izan behar duela. Baina ea ez-esateak ezetza pentsatu soil bezala jartzen ote duen, edo ea ezezteak «eza» eskatzen duen esan-beharreko bezala badenaren izaten uztean, hori ezin daiteke erabaki inolaz subjektibitate bezala jarriko pentsateari buruzko gogoeta subjektibotik. Gisako gogoetan ezin da erdietsi inondik ere galdera behar bezala egiteko dimentsioa. Galdetzeko geratzen da ea, emanik pentsatzea ek-sistentziari datzekiolar, «bai» ala «ez» ez ote diren eksistenteak izatearen egian. Hala bada, orduan «bai» eta «ez» berenez izatearen zerbitzura daude. Halako zerbitzari izaki, beraiek noren diren, ezin ordezkari dezaizkete hura sekula.

Ezeztatzea izatean bertan garatzen da eta ez inolaz gizakiaren hor-izatean, hau ego cogito-ren subjektibitate bezala pentsatua den neurrian. Hor-izateak ez du inolaz ezezten, gizakiak, subjektu bezala harturik, ezezte, iraitzearen zentzuan, gauzatzen duen neurrian, baizik hor-izateak ezezten du, honek, esentzia, non gizakia ek-sistitzen den, bezala bera ere izatearen esentziako den neurrian. Izateak ezezten du... izate den aldetik. Horregatik azaltzen da idealismo betean Hegel eta Schellingengan ezetza ukapenaren ukapen bezala izatearen esentzian. Hau, ordea, han dago pentsatua errealitate guztizkoaren zentzuan, bere burua nahi eta hain zuzen ere jakitearen eta maitasunaren nahimen bezala nahi duen nahimen baldintzabako bezala. Nahimen horretan ezkututzen da areago izatea botere nahimen bezala. Ezin aipa daiteke hemen zergatik, inolaz, guztizko subjektibitatean negatibitatea «dialektikoa» den eta zergatik dialektikaren bidez ezezte benaz agerian jartzen den, baina segituan esentzian ezkutatua izango den.

Ezezten zuena izatean nik ezereza deitzen dudaren esentzia da. Horregatik, izatea pentsatzen duelako, pentsatzen du pentsatzeak ezereza.

Izateak bakarrik ziurtatzen dio salbatuari onginahia eta basakeriari oldarra hondamendirakoko.

Gizakia, izatearen egian ek-sistitzen delarik, izateari datzekion neurrian bakarrik, izateatik bertatik etor daiteke gizakiarentzat lege eta arau izan behar duten aginduen izendaketa. Izendaketa _____ esaten da grezieraz. _____ ez da bakarrik lege, baizik era jatorrizkokoan izatearen probidentzian ezkutaturiko izendaketa. Izendaketa honek bakarrik bide ematen du gizakia izatean agintzeko. Gisako agindu batek bakarrik ematen du bide eramateko eta lotzeko. Bestela lege oro gizakiaren arrazoiaren egintza baino ez da. Arauak finkatze oro baino esentzialagoa da gizakiak izatearen egian egoitza aurkitzea. Egoitza honek

bakarrik ziurtatzen du iraunkorraren esperientzia. Izatearen egiak oparitzen du portaera orotarako irmotasuna. «Irmotasun» (Halt) hitzak gure hizkuntzan «zainketa» (Hut) esan nahi du. Izatea da zainketa, gizakia bere esentzia existentean halako moduan bere egiarekiko zaintzen duena, non berak ek-sistentzia hizkuntzan aterpetzen duen. Horregatik hizkuntza izatearen etxe bezala giza esentziaren aterpe. Hizkuntza gizakiaren esentziaren aterpe delako bakarrik, ezin egon daitezke gizatasun historikoak eta gizakiak etxean beren hizkuntzan, beraientzat beren trikimailuen bizitegi bihurtu denez.

Orain, ordea, zein erlaziotan dago izatearen pentsatzea portaera teoriko eta praktikorekiko? Pentsatze honek gogoeta oro gainditzen du, argiaz kezkatzen delako, han behingoz ikuste bat, teoria bezala, geratu eta mugi daitekeelarik. Pentsatzeak izatearen argiuneari egiten dio jaramon, honek izateari buruzko bere esatea hizkuntzan, existentziaren aterpe bezala, kokatzen duenean. Horrela pentsatzea da jardute bat. Baina jardute bat, une berean praxis oro gainditzen duena. Pentsatzeak jo eta pasa egiten du ekintza eta produkzioa ez bere lorpenaren handitasunaren bidez, eta ezta bere eragitearen emaitzen bidez ere, baizik bere gauzate arrakastarik gabekoaren txikitasunaren bidez.

Pentsatzeak izan ere bere esatean izatearen hitz esangabea eramaten du hizkuntzara.

Hemen erabiltzen den «hizkuntzara eraman» (zur Sprache bringen) hau orain erabat hitzez hitz hartu behar da. Izatea dator, bera argituz, hizkuntzara. Beti dago harako bidean. Iriste honek bere aldetik pentsatze ek-sistentea bere esatean hizkuntzara darama. Horrela hizkuntza bera izatearen argiunera jaso da. Azkenik horrela *da* hizkuntza era misterioitsuan eta halere beti gudan agintzailean. Horrela erabat esentziara eramano hizkuntza historikoa denean, izatea da gogoan gordea. Ek-sistentziak bizi du pentsatuz izatearen etxea. Honetan guztian badirudi, esate pentsatzailearen bidez ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Oraintxe puntuan azaldu zaigu inolaz pentsatzearen jarduera apenas sumagarri baten adibide bat. Izan ere, baldin pentsatzen badugu zinez hizkuntzari bidalitako «hizkuntzara eraman» esamoldea, hauxe eta ez besterik, baldin pentsatutako hori etorkizunean beti pentsatzeko bezala esatearen arretan gordetzen badugu, izatearen beraren zerbait esentziala eraman dugu hizkuntzara.

Izatearen pentsatze horretan sotiltasuna da harrigarria. Horretxek, hain zuzen ere, urruntzen gaitu harengandik. Izan ere guk «filosofia» izenaren pean munduaren historian bere itzala daukan pentsatzea bilatzen dugu, ikasiek bakarrik eskura duten ezohikoaren itxuran. Pentsatzea segituan imaginatzen dugu ezagutza zientifikoaren eta haren ikerketaren modura. Jardutea praxiaren lorpen erdiragarri eta arrakastatsuen arabera neurtu ohi dugu. Baina pentsatzearen jarduera ez da ez teorikoa ez praktikoa, ezta bi portaera moduen uztartzea ere.

Bere esentzia sotilgatik gertatzen zaigu ezinezagutzeko izatearen pentsatzea. Baldin, ordea, sotilaren ezohikoarekin etxekotzen bagara, orduan beste larritasun batek erasotzen digu. Izatearen pentsatze hori nahikeriaren menpe ez ote dagoen susmoa altxatzen da; izan ere, ezin atxiki dakiok badenari. Nondik hartzen du pentsatzeak bere neurria? Zein da bere jardutearen legea?

Hemen entzun behar da zure gutuneko hirugarren galdera: Comment sauver l'élément d'aventure que comporte toute recherche sans faire de la philosophie une simple aventurière? Aipatua bedi bidenabar poesia. Berak ere, pentsatzeak berak daukan galdera bera eta modu berean dauka aurrean. Baina betiere baliozko da batere pentsatu ez den Aristotelesen hitza bere Poetikan, ezen poesigintza egiazkoagoa dela badenaren ikerketa baino.

Halere, pentsatzea ez da bakarrik pentsatu-gabea bilatze eta ikertze bezala une aventure. Pentsatzea da bere esentzian, izatearen pentsatze bezala, izateak eskatua. Pentsatzea izateari dagokio datorrena (l'avenant) bezala. Pentsatzea, pentsatze den aldetik, lotuta dago izatearen etorrerari, izateari etorrera bezala. Izatea jada izendatu zaio pentsatzeari. Izatea *da*, pentsatzearen patu den aldetik. Patua, ordea, berez historikoa da. Bere historia etorri da dagoeneko hizkuntzara pentsalariaren esanean.

Geratzen den eta bere geratzean gizakiari itxaroten dion izatearen etorrera hau aldioro hizkuntzara eramatea da pentsatzearen egiteko bakarra. Horregatik esaten dute beti gauza bera pentsalari esentzialek. Horrek ez du esan nahi ordea: orobatekoa. Hau esaten diote, noski, haien ostean pentsatu nahi duenari. Pentsatzea, historikoki gogoetatuz, izatearen patuari jaramon egiten dionean, bere patuari dagokionari lotu zaio. Orobatekoan aterpetzeak ez du arriskurik. Gauza bera esateko eztabaidan sartzea, hor dago arriskua. Bikoiztasuna eta liskar hutsa daude mehatxuka.

Izateari buruzko esatearen egokitasuna, egiaren patu bezala, da pentsatzearen lehen legea, ez logikaren arauak, izatearen legetik bakarrik arau bihur baitaitezke. Esate pentsatzailearen patuari jaramon egiteak, ordea, ez du barnean hartzen bakarrik guk aldioro gogoeta dezagun *zer* esan eta *nola* esan behar dugun izateari buruz. Maila berean da esentzial pentsatzea, *ea* zenbateko neurrian, izatearen historiaren zein unetan, harekiko zein eztabaidatan eta zein eskakizunagatik esan daitekeen pentsakizun dena. Lehenagoko gutun batean aipaturiko hiru haiek zehazturik daude beren arteko loturan pentsatze historiko esentzialaren patuaren legetik abiatuz: gogoetaren zorrotasuna, esatearen arreta, hitzaren zuhurtasuna.

Iritsi da garaia filosofia estimu gehiegian edukitzearen ohitura galtzekoa eta horregatik hari gehiegi eskatzekoa. Beharrezko da oraingo munduaren premia honetan: filosofia gutxiago, baina pentsatzearekiko arreta gehiago; literatura gutxiago, baina lettrari kontu gehiago.

Etorkizuneko pentsatzea ez da gehiago filosofia, metafisikak baino era jatorrizkoagoan pentsatzen duelako, izenak gauza bera esaten baitu. Etorkizuneko pentsatzeak ezingo du gehiago, ordea, Hegelek eskatzen zuen bezala, «jakituriaren maitasun» izena alboratu eta bera jakituria bihurtu jakintza erabatekoaren itxuran. Pentsatzea gainbeheran dago bere behin-behineko esentziaren pobreziarantz. Pentsatzeak esate sotilean biltzen du hizkuntza. Hizkuntza, era horretan, izatearen hizkuntza da, hodeian zeruaren hodeiak diren bezala. Pentsatzeak, bere esatearekin, ildo apenas sumagarriak markatzen ditu hizkuntzan. Nekazariak urrats astiroz soroan barna egiten dituen ildoak baino oraindik sumagaitzagoak dira.